



BIOLOGIAKO GRADUA

2. MAILAKO IKASLEAREN GIDA (46 TALDEA-EUSKARA)

2023-2024 IKASTURTEA

Edukien taula

1.- Biologiako Graduari buruzko informazioa	3
Aurkezpena	3
Tituluaren kredituak: 240 ECTS	3
Espezialitateak:.....	3
Eskuratutako gaitasunak	3
Graduaren egitura.....	4
Bigarren mailako irakasgaiak Graduaren testuinguruan	4
Egin beharreko jarduera motak.....	5
Gradu Amaierako Lana (GRAL).....	5
Tutoretza akademikoak.....	6
Tutoretza plana (TP).....	6
Mugikortasuna	6
Kanpoko praktika akademikoak.....	6
Segurtasuna	7
Irakaslanean ezarri beharreko segurtasun neurriak	7
Norbera babesteko ekipamenduen (NBE) erabilera.....	7
Koordinazioa	7
Bestelako informazio interesgarria	7
2.- Taldearentzako informazio espezifiko	8
Irakaskuntza-taldeei ikasleak esleitzea.....	8
Taldeari dagozkion jardueren egutegia	8
Irakasleak	8
3. - Bigarren mailako irakasgaiari buruzko informazioa	8

Gida hau Biologiako Graduako Ikasketa Batzordeak (BIOLGIB) egin du

1. - Biologiako Graduari buruzko informazioa

Aurkezpena

Darabilen metodologiagatik eta sortzen dituen ezagutzengatik, Biologia zientzia esperimenteren funtsezko zatia da. Azkar ari da aurrera egiten eta oso eragin handia izaten ari da gizartearen garapenean. Biologiako Graduak mundu biziduna aztertzen du, hainbat mailatan, molekularik hasi eta biosferaraino, eta hainbat ikuspegiatik (egiturazkoak, funtzionalak eta bilakaerazkoak), eta integrazio maila handia dakar berekin. Graduaren konfigurazioari esker, izaki bizidunen aniztasunaz eta konplexutasun estruktural eta funtzionalaz jabetuko diren profesionalak prestatuko dira. Izaki horien antolaketa maila guztiak (zelulak, banakoak, populazioak, komunitateak eta ekosistemak) aztertuko dituzte, lortutako informazioa gai aplikatuetara igarotzea ahalbidetuko duen ikuspegi integratzailetik. Biologoaren eremu profesionalen artean ondorengoak aipa daitezke: osasuna, ikerketa eta garapen zientifikoa, farmazia industria, nekazaritzako elikagaien industria, industria kimikoa eta nekazaritza eta abelazkuntzako industria, ingurumen kudeaketa eta hezkuntza (bigarren mailako irakaskuntza eta unibertsitateko irakaskuntza).

Tituluaren kredituak: 240 ECTS

UPV/EHUren beraren araudiaren arabera, ECTS kreditu bat 25 lanordu dira, ikasleak gai bati dagozkion ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak hartzeko egin behar dituenak. Ordu horietan sartzen dira eskolak hartzen (teorikoak edo praktikoak), ikasten, mintegiak, lanak, praktikak edo proiektuak prestatzen, eta azterketak eta ebaluazio probak prestatzen eta egiten emandako orduak.

Espezialitateak:

- Biodibertsitatea eta Eboluzioa
- Ingurumen Biologia
- Zelulen Biologia, Molekularra eta Genetika

Prestakuntza prozesuan erabiliko diren hizkuntzak: gaztelania/euskara/ingeleza (eskaintza gero eta zabalagoa da UPV/EHUren Eleaniztasun Planaren esparruan).

Eskuratutako gaitasunak

Hauek dira gradu hau amaitzeaz eskuratuko dituzun gaitasun nagusiak:

- **T01.** Bizitzaren kontzeptuari eta jatorriari, antolamendu motei eta antolamendu-maileri eta karaktereak transmititzeko mekanismoei buruzko jakintzak (bilakaerari datxezkion prozesuak interpretatzeko aukera emango dutenak) eskuratzea.
- **T02.** Biodibertsitatearen oinarri genetikoak, morfologikoak eta funtzionalak azaltzea eta animaliak, landareak, onddoak, mikroorganismoak eta birusak katalogatzeko, azterketa filogenetikoak egiteko eta baliabide naturalak behar bezala kudeatzeko tresnak garatzea.
- **T03.** Izaki bizidunen funtzionamenduaren oinarri molekularrak ezagutzea, biomolekulak aztertu eta identifikatzea, jarduera metabolikoak ebaluatzea eta diagnostiko genetiko eta molekularrak egitea.
- **T04.** Hainbat zelula, ehun eta organismo mota lortu, erabili, kontserbatu eta behatzeko izaki bizidunen egitura, antolamendu eta garapenari buruzko beharrezkoak diren jakintza orokorrak edukitzea.
- **T05.** Organismoen funtzioak eta jarduerak antolamendu biologikoaren maila guztietan eta ingurunearekiko egokitze-maila guztietan erregulatu eta integratzeko oinarriak identifikatzea, bioprozesuak produzitu eta hobetzeko azterketak diseinatu eta aplikatzeko.
- **T06.** Ingurune fisikoari buruzko oinarri sendoa erakustea, ekosistemen egitura eta funtzionamendua interpretatzen lagunduko duena eta populazioak eta ekosistemak ebaluatu, planifikatu, kudeatu, kontserbatu eta leheneratzea ahalbidetuko duena.
- **T07.** Arlo instrumentalei buruzko oinarriko jakintzak behar bezala erabiltzea informazioa lortzeko, esperimenduak diseinatzeko eta Biologiako emaitzak interpretatzeko.
- **T08.** Biologoaren lanbidearen ingurune zientifiko eta soziala kontuan hartuta, haren lanbide-eremuen eremuan zerbitzuak egin eta proiektuak zuzendu, idatzi eta egikaritzea, eta komunitate zientifikoari eta gizarteari jakinaraztea.
- **T09.** Erabakiak hartzeko eta informazioa landu eta helarazteko gaituko duen azterketa, sintesi, antolaketa eta plangintzarako ahalmena garatzea.
- **T10.** Talde-lana bultzatuko duten pertsona arteko harremanetan trebetasunak garatzea eta arrazoiketa kritikoan eta gizartearen balioekiko konpromiso etikoan aurrera egitea.
- **T11.** Ikaskuntza autonomo jarraiturako tresnak eskuratzea ahalbidetuko duen eta ekimena, berrikuntza, kalitatearekiko motibazioa eta ingurumen-gaien inguruko sentsibilitatea sustatuko dituen jarrera positiboa agertzea.

- **T12.** Produktu kimikoak eta organismo biologikoak manipulatzeko dakartzen arriskuak behar bezala balioestea laborategietan jarduteko prozedura seguruak aplikatzeko, betiere lan-segurtasunari, hondakin arriskutsuen kudeaketari eta ingurumen-inpaktuari buruzko legeriari jarraiki.

Zeharkako gaitasunak

Testuinguru zehatz bateko beharren aurrean eraginkortasunez jokatzeko, pertsona batek modu integratua erabiltzeko gai izan behar duen trebetasun eta jarrera multzoa. Zeharkako gaitasunek, beraz, hezkuntza programa baten ikaskuntza emaitzak deskribatzen dituzten gaitasun eta jarrera multzoa osatzen dute. Biologiako graduako zeharkako gaitasunak hurrengoak dira:

- ZG1 Konpromiso etikoa
- ZG2 Ikaskuntza gaitasuna
- ZG3 Talde-lana
- ZG4 Sormen eta ekintzaile gaitasuna
- ZG5 Komunikazio gaitasuna
- ZG6 Autonomia eta erantzukizuna

Zeharkako gaitasunen eta beraien eginkizunaren mailen inguruko informazio gehiago Zientzia eta Teknologia fakultateko web-orrian lor daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/ct-b>

Graduaren egitura

MAIL	LAUHILEKOA	IRAKASGAIA	ECT	MOTA ¹	
1. ^a	1. ^a	ZELULEN BIOLOGIA	6	N	
		BIOKIMIKA I	6	N, BAO	
		MATEMATIKA	6	N, ZO	
		KIMIKA	6	N, ZO	
	2. ^a	BIOESTADISTIKA	6	N, ZO	
		BIOKIMIKA II	6	N, BAO	
		BIOLOGIAKO KONTZEPTUAK ETA METODOA	6	N, ZO	
	URTEKOA	FISIKA	9	N, ZO	
		GEOLOGIA*	9	N, ZO	
	2. ^a	1. ^a	GENETIKA	6	N
MIKROBIOLOGIA			6	N	
TERMODINAMIKA ETA ZINETIKA KIMIKOA			6	N, ZO	
2. ^a		EHUNEN BIOLOGIA	6	N	
		MIKROORGANISMOEN DIBERTSITATEA	6	N	
		GENETIKA MOLEKULARRA	6	N	
URTEKOA		BOTANIKA	12	N	
		ZOOLOGIA*	12	N	
3. ^a		1. ^a	LANDAREEN FISILOGIAREN OINARRIAK*	6	N
			ANIMALIEN FISILOGIAREN OINARRIAK*	6	N
	ANTROPOLOGIA FISIKO*		6	N	
	HAUTAZKO IRAKASGAI BAT		6	Hz	
	2. ^a	ZUZENBIDEA ETA ETIKA BIOZIENTZIAN	6	N	
		LANDAREEN FISILOGIA AURRERATUA	6	N	
		ANIMALIEN SISTEMEN FISILOGIA	6	N	
		HAUTAZKO IRAKASGAI BAT	6	Hz	
	URTEKOA	EKOLOGIA*	12	N	
	4. ^a	URTEKOA	GRADU AMAIERAKO LANA	12	N
HAUTAZKO IRAKASGAIK			48	Hz	

N: Nahitaezkoa, Hz: Hautazkoa, ZO: Zientzietako oinarritzkoa, BAO: beste adar batzuetako oinarritzkoa

*Ingelesez ere eskaintzen da.

Bigarren mailako irakasgaiak Graduaren testuinguruan

Lehen esan bezala, Graduaren konfigurazioari esker Biologian gaitutako profesionalak prestatuko dira. Azken helburua pixkanaka erdiesten da: pausoz pauso ikasleak gaitasun berriak hartzen ditu, edo beste batzuen maila hobetzen du, modu autonomoan eta jarraituan ikasteko gai den eta gizartearekiko konpromiso etikoa hartuta duen profesionala izatera iritsi arte. Graduako bigarren mailan, irakasgaien edukia prestatzerakoan

kontuan izan behar da garatuko diren Graduako gaitasunak (taulan jasotakoak) bigarren mailako ikasleetara egokitutako eskakizun mailarekin eskaini behar direla.

MAIL	LAUHILE	IRAKASGAIA	Gaitasunak
2. ^a	1. ^a	GENETIKA	T01, T04, T05, T08, T12
		MIKROBIOLOGIA	T01, T04, T07, T08, T12
		TERMODINAMIKA ETA ZINETIKA KIMIKOA	T03, T07, T12
	2. ^a	EHUNEN BIOLOGIA	T04
		MIKROORGANISMOEN DIBERTSITATEA	T01, T02, T04, T12
		GENETIKA MOLEKULARRA	T02, T03, T05, T07, T12
	URTEKOA	BOTANIKA	T01, T02, T04, T06, T08
		ZOOLOGIA	T01, T02, T04

Egin beharreko jarduera motak

Biologiako Graduan, **eskola magistralak (M), mintegiak (S), ikasgelako praktikak (GA), laborategikoak (GL), landa praktikak (GCA) eta ordenagailuko praktikak (GO)** ikasteko funtsezko irakaskuntza modalitateak dira. Horiek guztiak lehenengo mailatik erabiltzen dira, nahiz eta irakasgai bakoitzean pisu erlatibo ezberdina hartzen duten Graduak aurrera egin ahala. Irakaskuntza modalitate horien guztien erabilerak graduatuaren profesionalizazioa eta bere jardute esparruari dagozkion trebetasun tekniko, metodologiko eta intelektualen garapena bermatzen du.

Gradu Amaierako Lana (GRAL)

Gradu Amaierako Lana (GRAL) ikasle bakoitzak zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean banaka egin behar duen proiektu, memoria edo azterlana da. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, Graduako ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-erakundeak, gaitasunak eta trebetasunak.

GRAlean ikasleek beren ikasketetan zehar eskuratutako ezagutzak aplikatzeko aukera izango dute lan edo proiektu zientifiko/tekniko batean, eta horrekin batera, titulazioko lan-arlo desberdinei lotutako memoria bat idatziko dute. Beraz, GRAlean titulazioari lotutako gaitasun orokorrak aplikatuko dira, eta datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatuko dira. Datu horiek, normalean, ikasketei lotutakoak izango dira; era horretan izaera zientifiko edota teknologikoko gai garrantzitsuei buruzko gogoetak egin, eta pentsamendu kritikiko, logiko eta sortzailea garatzen laguntzen duten iritziak eman ahal izango dira.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari Buruzko Arautegian ikasleek GRALa egiten hasteko ezagutu behar dituzten fase eta bete beharreko baldintzen inguruko xehetasunak azaltzen dira. Hurrengoak dira 2023/24 ikasturteko data garrantzitsuak:

Aurreinskripzioa (2023ko uztailak 12-14, biak barne): online betetzeko formularioaren bidezko aurreinskripzioa: https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/tfg_aurreinskripzioa.

Inskripzioa edo izen-ematea: GRAlean izena emateko, 72 kreditu eduki daitezke gehienez egin gabe (4. mailako 60 kredituak eta aurreko ikasturteetatik gehienez gera daitezkeen 12). Bi aukera daude:

- **2023ko irailak 1-8** (biak barne): irakasleek ikasleekin **adostutako lanen** izenak ematen dituzte eta, aldi berean, adostu gabeko lanen gaiak eskaintzen dituzte, gero ikasleek hautatu ditzaten.
- **2023ko irailak 20-22** (biak barne): **adostutako lanik ez** duten ikasleek GAUREn bidez egiten dute gaien aukeraketa. Zerrendatik gehienez bost gai hautatu daitezke.

Esleipena (2023ko irailak 25-29 (biak barne): GRAlen gaien behin betiko esleipena egindakoan ikasleei posta elektronikoko bidez mezua helarazten zaie.

Matrikulazioa, memoria entregatzea eta defentsa: matrikulak bi defentsa deialditarako eskubidea ematen du ikasturteko. Matrikulatzeko, ikasleak Graduako kreditu guztiak gaudituta izan behar ditu, GRALarenak izan ezik. 2023/24 ikasturtean, honako hauek izango dira matrikularako eta defentsarako datak:

Deialdia	Matrikula eta Memoria entregatzea	Defentsa
Otsaila	2024ko otsailaren 12-15	2024ko martxoaren 4-8
Ekaina	2024ko ekainaren 19-21	2024ko uztailaren 10-12
Abuztua	2024ko uztailaren 19-23	2024ko irailaren 4-6

GRALari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/trabajos-fin-grado>

Tutoretza akademikoak

Tutoretza akademikoa da irakaslearen bidez ikasleari eskaintzen zaion aholkularitza eta orientazio akademikorako prozesua. Aholkularitza hau ikasleak ikasten ari diren irakasgaietan laguntza eskaintzeko bideratuta dago. Lauhileko bakoitzaren hasieran irakasle bakoitzak bere tutoretza-ordutegia jakinaraziko du.

Tutoretza plana (TP)

Tutoretza Planak (TP) irakasle tutore bat edukitzeko aukera eskaintzen die ikasleei eta, horrela, unibertsitateko bizitzaren alderdi guztietan integratzea errazagoa izango dute. Horrez gain, irakasle tutore bakoitzak ikasleen ibilbide akademiko osoan zehar orientatuko ditu bere ikasleak.

Irakasle tutoreen xedeak hurrengo hauek dira:

- Prestakuntza integraleko prozesuan ikasleei laguntzea, ikuspegi akademiko, pertsonal eta profesionalen.
- Ikasleei Fakultatearen jarduera akademikoan integratzen laguntzea.
- Ikasleei unibertsitatean eskuragarri dituzten zerbitzu eta jardueren berri ematea.
- Ikasketa aldian ager daitezkeen zailtasunak identifikatzea eta ikasteko gaitasun eta estrategien garapena erraztea.
- Curriculum ibilbidea aukeratzearen inguruko erabakiak hartzeko aholku ematea.
- Ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako interesgarria izan daitekeen informazioa ematea.

Lehenengo mailaren hasieran, irakasle tutore bana esleituko zaie ikasleei. Esleipen hori indarrean egongo da Biologian graduazioa lortu arte. Hala ere, arrazoi sendoak argudiatuz, bai irakasle tutoreek bai tutoretzapeko ikasleek berresleipen bat eska dezakete Biologiako Gradurako Tutoretza Planaren (BIOLTP) koordinatzailearen bidez.

Behar izanez gero, tutoretza prozesua banakakoa izan daiteke, baina oro har taldeka egingo da, irakasle tutore bakoitza bere ikasleen taldearekin elkartuz.

Ikasturte hasierako lehenengo asteetan, irakasle tutore bakoitza egokitutako ikasleekin harremanetan jarriko da, tutoretza prozedura eta TPn programaturiko jardueren egutegia zehazteko; horretarako, unibertsitateko posta elektronikoa erabiliko da.

Zein izan behar da ikasleen konpromisoa?

- TPn programaturako bileretara joatea
- Ikasturtea amaitzean TP ebaluatzea

Mugikortasuna

Fakultateak parte hartzen duen mugikortasun programen bidez, ikasleek aukera izango dute lauhileko edo ikasturte oso bat beste unibertsitate batean ikasteko. Bete beharreko baldintzak eta kontuan izan beharreko gainerako informazioa hurrengo estekan ikus daitezke: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>

Kanpoko praktika akademikoak

Biologiako graduak curriculumetik kanpoko praktika akademikoak ditu; borondatezkoak, beraz. Dena den, kanpoko enpresetan praktikak egiten dituzten ikasleek aukera gehiago dituzte lanean hasteko eta, gainera, ezagutza eta gaitasun praktikoak bereganatzen dituzte, esperientzia profesionala.

Enpresetako praktikei eta prestakuntza osagarriari buruzko informazioa Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetzari dagokio, eta fakultateko idazkaritzan kokatuta dagoen Ikasleentzako Arreta Zerbitzuaren bitartez kudeatzen da:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/insercion-laboral>.

Segurtasuna

Irakaslanean ezarri beharreko segurtasun neurriak

- Oro har, ikasle orok bere inguruan dauden segurtasun elementuetara ohitu behar du (su itzalgailuak, mahukak, segurtasun duxak eta begiak garbitzekoak non dauden jakin behar du), baita larrialdietako irteera nagusien berri izan ere. Irteera horiek errespetatu egin behar dira eta horietan oztopo izango den elementurik egotea saihestu behar da.
- Laborategiko praktikak, tailerrak eta landa lanak egin bitartean, horietaz arduratzen diren irakasleek Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Printzipioak aplikatuko dituzte, baita praktiketan jardunbide egokien kodeak betetzen direla zaindu ere.
- Laborategirako sarbidea mugatua izango da eta irakasle arduradunek kontrolatuko dute.

Norbera babesteko ekipamenduen (NBE) erabilera

- Laborategiko praktiketan ezinbestekoa da bata erabiltzea. Ikaslea arduratuko da bata erosteaz.
- Irakasleek hala eskatuz gero, segurtasun betaurrekoak erabili beharko dira. Ikasleak arduratuko dira norbera babesteko ekipa hau erosteaz.
- Beharrezkoa izanez gero, erabili eta botatzeko eskularruak banatuko dira produktu arriskutsuekin lan egiterakoan eskuak babesteko.

Koordinazioa

Gradu Ikasketen Batzordeak (GIB) Graduko koordinazioaz arduratzen dira, hau da, Graduaren curriculumaren garapenez, jarraipenez, berrikuspenaz eta hobekuntzaz arduratzen dira. Hurrengoak dira Biologiako Graduko koordinatzaileak:

Mota	Koordinatzailea	Kontaktua
Gradua	Iñigo Azua Pérez Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Saila	inigo.azua@ehu.eus 94 601 5408 CD5.P0.16
1. maila TP BATP	Pamela Ruiz Rodríguez Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saila	pamela.ruiz@ehu.eus 94 601 5513 F2.S2.8
2. maila	Idoia Martín Guerrero Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila	idoia.marting@ehu.eus 94 601 2605 F1.P0.1
3. maila	Usue Pérez López Landare-Biologia eta Ekologia Saila	usue.perez@ehu.eus 94 601 3374 F2.P0.4
4. maila	Mikel Iriondo Orensanz Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila	m.iriondo@ehu.eus 94 601 5298 F1.S1.10
Praktikak	Maite Orruño Beltrán Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Saila	maite.orruno@ehu.eus 94 601 2688 CD5.P0.5
Gradu Amaierako Lana	Aitor Laza Martínez Landare-Biologia eta Ekologia Saila	aitor.laza@ehu.eus 94 601 8415 F2.P0.9

Biologia Graduko GIBei buruzko informazio gaurkotua hurrengo estekan kontsultatu daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/comisiones-grado>.

Gainera, Graduko irakasgai bakoitzerako koordinatzaile bat izendatuko da, zeina irakasgai hura ematen duen irakasle-taldea koordinatzeaz arduratuko baita. Biologia Graduko irakasgaietako koordinatzaileak hurrengo estekan kontsultatu daitezke: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/coordinacion-de-asignaturas-bio>.

Bestelako informazio interesgarria

Graduko zenbait irakasgaitan, irakasleek ikasgela birtuala erabiltzen dute irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Ikasgela horiek eGelan daude (<https://egela.ehu.eus>). eGelan sartzeko LDAP erabiltzaile-izena behar da, ikasle bakoitzari esleitzen zaiona ikasle berriko matrikula egitean. LDAP erabiltzailea ere GAUREn

sartzeko erabiltzen da, zeina administrazio tramiteak eta ikasleen bizitza akademikoari lotutako datuak kontsultatzeko erabiltzen den erreminta informatikoa baita.

Biologiako Graduan matrikulatutako ikasle bakoitzak posta elektronikoko korporatibo propioa dauka; kasu honetan ere, ikasle berriko matrikula egitean helbidea eta pasahitza esleitzen zaio ikasle bakoitzari. Helbide honetara iristen dira irakasleek, eGelak, dekanotza taldeak eta unibertsitateko bestelako estamentuek bidalitako mezuak. Helbide honetara iristen diren mezuak posta elektronikoko pertsonalera birbideratu daitezke. Informazio gehiago hurrengo estekan: https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/bbc_alumnado. Partekatutako fitxategi ostatu-zerbitzua ere dago

(<https://www.ehu.es/es/group/ikt-tic/bildu>).

Posta korporatiboaren erabilerari edo UPV/EHUko zerbitzu informatikoei lotutako edozein zalantza edo arazo izanez gero, gomendagarria da EAZrekin (Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua) kontaktatzea <https://lagun.ehu.es/CAisd/pdmweb.exe> web orriaren bidez, LDAP erabiltzailea erabiliz. EAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.es/eu/web/ikt-tic/eaz-cau> estekan.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikaslearentzako Arreta Zerbitzuak (ZTFIAZ) aholku ematen die ikasleei, eta enpresetako praktikan zein akademi-elkartruke programetan parte hartzeko beharrezko izapideez ere arduratzen da. Fakultateko Idazkaritzan kokatuta dago. ZTFIAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/atencion-estudiantes> estekan.

Biologiako Graduari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/grado-biologia>

Fakultateko web orria:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/>

2. - Taldearentzako informazio espezifiko

Irakaskuntza-taldeei ikasleak esleitzea

Ikasleen banaketa irakaskuntza-talde desberdinetan irakasle bakoitzak jakinaraziko du lauhilabete bakoitzaren hasieran.

Taldeari dagozkion jardueren egutegia

Zentroko eskola-egutegia webgune honetan kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/calendario>

Ordutegi ofizialak, jarduera bakoitza emango den ikasgelen inguruko informazioarekin batera, eta azterketen egutegi ofiziala fakultateko web-orrian argitaratu eta eguneratuko dira:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/egutegia-ordutegiak>

Irakasleak

Gradu honetako ikasgaiak ematen dituzten irakasleen inguruko informazioa (harremanetarako datuak, tutoretza-orduak) graduoko webgune instituzionalean kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.es/eu/biologiako-gradua/irakasleak>

Lotura horretan, irakasle baten informazioa ikusi ahal izateko, nahikoa da irakaslearen izenaren gainean klik egitea.

3. - Bigarren mailako irakasgaiari buruzko informazioa

Irakasgaiak ordena alfabetikoaren arabera ordenatuta daude.

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia

310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztu gabea

Plana

GBIOL030 - Biologiako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

26830 - Botanika

ECTS kredituak: 12**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Botanika, enborrezko izaera duen irakasgaia da, derrigorrezkoa, eta Biologia graduko 2. mailan ematen da. Helburu nagusia ikasleei landare-organismo desberdinen orokortasunak ezagutaraztea da: onddo, alga, briofito eta landare baskularrak. Horretarako, aipaturiko organismo horien ezaugarri morfologikoak, bizi-zikloak eta ekologikoak aztertzen dira. Laborategi-praktiken bidez, organismo horien ezaugarri makroskopiko eta mikroskopikoak lantzen dira, eta ikaslea identifikazio-gakoen erabileran trebatzen da. Landa-irteeren bidez, euren funtzio eta ingurune ekologikoa interpretatzen da.

Ez da alde zuzeneko baldintzarik behar eta lotura du Ekologia eta Landare-Fisiologiako irakasgaiekin. Oinarrizko formakuntza da biologian graduatuko den ikasle ororentzat.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- Landare eta onddoen dibertsitatea ezagutzea, beren antolakuntza mailak identifikatzea eta baita ere landare eta onddoek ekosistemetan duten funtzioa ulertzea.
- Botanika arloko kontzeptu eta ezagumendu espezifikokoak menperatzea.
- Botanika arloaren teknikerako eta tresnetarako oinarrizko trebetasuna eskuratzea.
- Giza ekintzekin inplikaturik dauden landareak eta onddoak antzematea.

Zeharreko gaitasunei dagokienez, ahozko eta idatzizko komunikazioan trebatzea, sintesirako gaitasuna lantzea eta erabakiak hartzeko ziurtasun eta konfidantza eskuratzea dira landuko direnak.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**EGITARAU TEORIKOA**

1. gaia. Botanika kontzeptua. Landare-bizidunaren kontzeptua. Bizidunen sailkapena.
2. gaia. Landare-morfologia. Eredu morfologikoak eta antolakuntza-mailak.
3. gaia. Landare-ugalketa. Ugalketa-motak. Ernalketa-motak. Bizi-zikloak.
4. gaia. Sistematika, taxonomia eta filogenia. Nomenklatura botanikoa.
5. gaia. Onddo kontzeptua. Ezaugarri begetatiboak eta ugal ezaugarri orokorrak. Elikadura. Bizi-zikloak, ekologia eta garrantzia. Sailkapena.
6. gaia. Zygomycota eta Glomeromycota dibisioak. Ezaugarri orokorrak, bizi-zikloa, ekologia eta garrantzia.
7. gaia. Ascomycota dibisioa: Ezaugarri morfologikoak, ugal ezaugarriak eta bizi-zikloa. Orden garrantzitsuenen ezaugarriak.
8. gaia. Basidiomycota dibisioa: ezaugarri orokorrak eta bizi-zikloa. Sailkapena. Pucciniomycotina subdibisioa. Ezaugarri orokorrak, bizi-zikloa eta garrantzia.
9. gaia. Basidiomycota dibisioa (jarr.). Agaricomycotina subdibisioa. Ezaugarri orokorrak, bizi-zikloa eta garrantzia.
10. gaia. Onddoen sinbiosiak. Onddo mikorrizoak eta onddo likenizatuak.
11. gaia. Oomycota dibisioa. Ezaugarri orokorrak, bizi-zikloa eta garrantzia.
12. gaia. Antolakuntza prokariotikoa. Ezaugarri orokorrak. Cyanophyta dibisioa.
13. gaia. Alga kontzeptua. Ezaugarri biologikoak, bizi-zikloak, ekologia eta garrantzia. Sailkapena.
14. gaia. Rhodophyta dibisioa. Ezaugarri orokorrak eta bizi-zikloa. Rhodophyceae klasea: Ezaugarri orokorrak, biologikoak, bizi-zikloak, ekologia eta garrantzia.
15. gaia. Dinophyta dibisioa. Ezaugarri orokorrak, ekologikoak, bizi-zikloa eta garrantzia.
16. gaia. Heterokontophyta dibisioa. Ezaugarri orokorrak. Bacillariophyceae klasea: Ezaugarri orokorrak, biologikoak, bizi-zikloak, ekologia eta garrantzia.
17. gaia. Heterokontophyta dibisioa (jarr.). Phaeophyceae klasea. Ezaugarri orokorrak, biologikoak, bizi-zikloak, ekologia eta garrantzia.
18. gaia. Euglenophyta dibisioa. Ezaugarri orokorrak, biologikoak, bizi-zikloak, ekologia eta garrantzia. Chlorophyta dibisioa: Chlorophyceae eta Ulvophyceae klaseak. Streptophyta dibisioa: Charophyceae klasea. Ezaugarri orokorrak, bizi-zikloak, ekologia eta garrantzia.
19. gaia. Enbriobiontoen ezaugarri orokorrak. Sailkapena.
20. gaia. Briofitoen ezaugarri orokorrak eta bizi-zikloa. Sailkapena. Marchantiophyta dibisioa: Ezaugarri orokorrak, bizi-zikloak, ekologia eta garrantzia.
21. gaia. Bryophyta dibisioa: Bryopsida klasea. Ezaugarri orokorrak, bizi-zikloa, ekologia eta garrantzia.
22. gaia. Kormofitoen ezaugarri orokorrak. Kormoaren antolaketa. Landare-ehunak eta hazkundera.
23. gaia. Sustraia: Kontzeptua, morfologia, funtzioak eta eraldaketak.
24. gaia. Zurtoina: Kontzeptua, morfologia, funtzioak eta eraldaketak.

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

OHIKO DEIALDIA

Etengabeko ebaluazio-sistemak, ikasturtean zehar burututako jarduera desberdinen ebaluazioa inkluditzen du, bai taldeka eta bai maila indibidualen egingo diren frogak/ekintzak izanik. Horrela dago banatuta:

1. Atal teorikoaren ebaluazioa: erantzun laburreko proba objektiboak dituen azterketa idatzia da. Froga indibiduala da. Irakasgaiaren nota globalaren %60a da. Azterketa praktikoa egiteko, azterketa teorikoan gutxienez 5eko kalifikazioa atera behar dute ikasleek. Lehen lauhilekoaren bukaeran azterketa partziala egingo da.
2. Atal praktikoen ebaluazioak 3 azpiatal ditu: (a) landare angiospermo baten deskribapena; (b) irudien interpretazioa; (c) zurezko landareen visu-a. Azpiatal bakoitzaren portzentajea herena da, baina batezbestekoa egiteko atal guztiek minimoki 3ko nota izan behar dute. Froga indibiduala da. Irakasgaiaren nota globalaren %25ekoa da.
3. Mintegien eta landa-irteeren ebaluazioa: ikasleek herbarioa egin beharko dute binakako edo hirunakako taldeetan, gutxienez 50 zuhaitz eta zuhaisken pleguez osatuta egongo dena. Irakasgaiaren nota globalaren %5a da.
4. Gela-praktiketan taldeka egingo diren jarduerak eta partaidetza aktiboa ere baloratuko da. Irakasgaiaren nota globalaren %10a da.

Irakasgaiko ebaluazio-probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere [soilik angiospermoen deskribapenerako gida eta praktiketako koadernoak erabil dezakete azterketa praktikoa]. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio-probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragotzeari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

Ikasleak azterketa final idatzira ez aurkeztea erabakitzen badu, etengabeko zein azkeneko ebaluazioan, ebaluazio-deialdiari uko egin diola ulertuko da, eta beraz aktetan "Ez Aurkeztua" bezela jasoko da.

Ebaluazio-mota, ohiko eta ezohiko deialdietan berdina da.

Halaber, ikasleek eskubidea dute etengabeko ebaluazioari uko egiteko. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen inprimaki bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari (koordinatzaileari) eta, horretarako, 20 asteko epea izango du ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Edozein kasutan, errenuntzia horrek irakaskuntz jardueren antolaketan eragin ditzakeen ondorioak kontutan hartuz, gomendatzen da uko egitearen asmoa irakaskuntz aldia hasi eta gehienez 4 asteetara adieraztea.

OHAR GARRANTZITSUA: COVID-19ak sortarazitako egoera eta osasun-baldintza berezia dela eta, ebaluazio-metodo honek aldaketak izan ditzake osasun-agintarien jarraibideek hala ezartzen badute. Behar diren aldaketak behar bezala eta garaiz iragarriko lirakeke, ikasleek zuzentasunez eta justiziaz ebaluatzen duten eskubidea bermatzeko behar diren estrategia eta tresnak erabiliz.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EZOHIKO DEIALDIA

Ohiko deialdiko azterketa teorikoaren edo eta praktikoen kalifikazioa 5 edo 5ekoa baino altuagoa izan bada, ezohiko deialdirako gorde egiten da. Halere, ikasleak, nota igotzeko xedeaz, aurkeztea eska dezake bi azterketen kasuan.

Jarduera osagarri dagokien notaren %10a eta herbarioari dagokion %5a berdin mantentzen dira bi deialdietan.

Irakasgaiko ebaluazio-probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere [soilik angiospermoen deskribapenerako gida eta praktiketako koadernoak erabil dezakete azterketa praktikoa]. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio-probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragotzeari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

Ikasleak azterketa final idatzira ez aurkeztea erabakitzen badu, etengabeko zein azkeneko ebaluazioa izan, ebaluazio-deialdira uko egin diola ulertuko da, eta beraz aktetan "Ez Aurkeztua" bezela jasoko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ez dago.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Font-Quer, P. (1985). Diccionario de Botánica. Ed.Labor.
- Izco, J. (Coord.) (2004). Botánica. McGraw-Hill Interamericana
- Lüttge, U., M. Kluge & G. Bauer (1993). Botánica. Interamericana McGraw-Hill
- Mauseth J.D. (2009). An Introduction to Plant Biology. (4 ed) Jones & Bartlett Pubish.
- Nabors, M.W. (2006). Introducción a la Botánica. Pearson Eucación. S.A.
- Raven, P.H., R.F. Evert & S.E. Eichhorn (1992). Biología de las Plantas. Ed. Reverté
- Scagel, R. et al. (1987). El reino vegetal. Ed.Omega.
- Sitte, P., E.W. Weiler, J.W. Kadereit, A. Bresinsky & C. Köner (2004). STRASBURGER. Tratado de Botánica (35º ed.). Ed.Omega

Praktiketarako

- Aizpuru, I. et al. (1996). Euskal Herriko Zuhaitz eta zuhaisken gidaliburua. Eusko Jaurlaritza.
- Aizpuru, I. et al. (2010). Euskal Herriko Zuhaitz eta zuhaisken gida. (2. argitaraldia) Eusko Jaurlaritza.
- Aizpuru, I. et al. (2004). Euskal Herriko landareak eta inguruetakook sailkatzeko gako irudidunak. Eusko Jaurlaritza.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Alexopoulos, C. J. & C.W. Mimms. (1985) Introducción a la micología. Ed.Omega.
- Cronquist, A. (1984) Introducción a la Botánica. C.E.C.S.A.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

- <http://www.unioviedo.es/bos/Asignaturas/Botanica/>
- <http://www.unex.es/botanica/LHB/>
- <http://www.asturnatura.com/>
- <http://www.mobot.org/mobot/research/apweb/>

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Ziki.** Zehaztu gabea**Plana** GBIOLO30 - Biologiako Gradua**Ikastaroa** 2. maila**IRAKASGAIA**

26828 - Ehunen Biologia

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honetan azaltzen dira garapenaren eta animalia ehunen kontzeptuak, ehunen egitura, funtzioa, beraien dinamika (berriztapena eta berriraketa) eta ehunen eraketarako zelulen arteko (zelula-zelula elkarrekintzak) eta ingurunearekiko harremanak. Era berean animalia ehunen antolaketa azaltzen da, zelularen osagaietatik hasita organo, aparatu eta sistemen barruan duten integrazioa barneratuz. Ehunen egituraren arabera funtzioak deskribatzen dira, jatorri filogenetikoa eta inguruak duen eragina kontutan hartuz. Ikaslearen trebetasun teknikoak lantzen da animalia ehunen behaketa mikroskopikoa gauzatzeko.

Irakasgai hau Biologia graduko bigarren mailako bigarren lauhilabetean eskeintzen da.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**GAITASUN ESPEZIFIKOAK:**

- Animalia-ehunen garapenean, egiturari, zereginean eta dinamikan (berritzea, birsorkuntza) oinarritutako diren aspektu teorikoak ezagutzeko.
- Zelulek beraien ingurunearekiko eta baita ehunen eraketarako beste zelulekin dituzten harremanak eta elkarrekintzak ikastea.
- Ehunen egituraren ulermena abiapuntutzat hartuz, aztertzea animalia ehunen antolakuntza, beraien osagai zelularretatik hasita eta beraien organo, aparatu zein sistemen barneko integrazioan bukatuz.
- Laginak behar bezala manipulatzeko eta animalia-ehunak mikroskopikoki behatzeko ezagutzak eta trebetasun teknikoak eskuratzea.

ZEHARKAKO GAITASUNAK:

- Analisi eta sintesirako ahalmena garatzea.
- Antolakuntza eta planifikaziorako ahalmena garatzea.
- Talde-lana egiten ikastea.
- Eskuratutako ezagutzak ahoz komunikatzen ikastea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**TEORIA EGITARAUA:****GARAPENAREN BIOLOGIA ZELULARRA**

1. gaia. GAMETOGENESIA. Espermatogenesisia. Morfologia-erlaketak. Oogenesisia. Arrautza motak.
2. gaia. ERNALKUNTZA ANIMALIETAN. Kanpo eta barne ernalkuntza. Migrazioa eta gametoen arteko ezagupena. Akrosomaren erreazioa. Gametoen fusioa eta poliespermiaren eraiketa. Material genetikoen fusioa. Oozitoaren aktibazioa.
3. gaia. ENBRIOI ORRIEN ERAKETA. Zigotoaren polarizazioa. Lakainketa. Blastula. Gastrulazioa. Mugimendu morfogenetikoak. Enbrioi orrien eraketa. Garapenaren mekanismo zelularrak.

ANIMALI HISTOLOGIA

4. gaia. EHUNAREN KONTZEPTUA ETA ANIMALI EHUNEN SAILKAPEN OROKORRA. Ehunaren definizioa. Animalia ehunen motak eta ezaugarri orokorrak. Jatorria eta enbrioi orriekiko harremana.
5. gaia. EPITELIOAK. Epitelioaren kontzeptua. Ezaugarriak. Sailkapen orokorra. Jatorri ontogenikoa. Gaineztadura-epitelioak: definizioa eta sailkapena. Guruin-epitelioak: definizioa eta sailkapena. Guruin exokrinoak. Guruin endokrinoak.
6. gaia. EHUN KONEKTIBOIA. Ehun konektiboaren jatorria, kontzeptua eta sailkapena. Zelularteko matrizea eta ehun konektiboko zelulak. Mesenkima. Ehun konektibo gelatinotsua. Ehun konektibo erretikularra eta zelularra. Ehun konektibo adipotsua. Ehun konektibo laxoa. Ehun konektibo dentsoa. Kartilagoa: ezaugarri orokorrak. Osagaiak, motak eta funtzioa. Kondrogenesia eta hazkuntza kondrala. Bisorkuntza eta endekatze-aldaketak. Hezur-ehuna: ezaugarri orokorrak eta osagaiak. Hezur-motak. Osteogenesisia. Hezuraren hazkuntza. Birmoldaketa eta konponketa.
7. gaia. MUSKULU-EHUNA. Kontzeptua eta sailkapena. Muskulu leuna: egitura, zeregina, kokapena eta histogenesisia. Zelula mioepitelialak. Muskulu ildaskatu eskeletikoa: egitura, zeregina, kokapena eta histogenesisia. Zuntz eskeletikoen motak: zuntz zuriak eta zuntz gorriak. Bihotz-muskulua: egitura, zeregina, kokapena eta histogenesisia. Muskulu ildaskatu ornogabeetan.
8. gaia. NERBIO-EHUNA. Egitura orokorra eta sailkapena. Histogenesisia. Neurona: morfologia (axona, dendritak eta perikariona) eta sailkapena. Sinapsiak: morfologia, sailkapena eta fisiologia. Neuroglia: astrozito protoplasmaticoak, zuntzaskatuak eta hegalatuak. Oligodendrozitoak. Mikroglia eta mesoglia. Neuropiloa. Nerbio-zuntzak eta glia periferikoa:

satelite-zelulak edo anfitoak, zuntz mieliniko eta amielinikoak. Schwann zelula. Nerbio-bukaerak.

ANIMALI ORGANOGRAFIA MIKROSKOPIKOA

9. gaia. ANIMALI ORGANOGRAFIA MIKROSKOPIKOAREN OINARRI OROKORRAK. Organo, aparatu eta sistemaren kontzeptuak. Animali filogenia. Funtzio-adaptazioak.

10. gaia. ORGANOAK, APARATUAK ETA SISTEMA DISKRETUAK. Tegumentua: ornogabeak eta ornodunak. Ornogabeen liseri-aparatua. Ornodunen liseri-sistema. Arnas-organoak eta traktuak. Eskrezio- eta osmoeraenketa-organoak. Ugal-aparatua: gonadak, hozi-zelulak eta organo erantsiak.

11. gaia. SISTEMA DIFUSOAK. Sistema endokrinoa. Nerbio-sistema: sailkapena eta filogenia. Nerbio-sistema zentrala eta periferikoa. Egitura sentsorialak eta bestelako elementu hartzaileak.

LABORATEGIKO PRAKTIKAK:

Praktika 1. Gametogenesia eta enbrioiren garapen goiztiarra.

Praktika 2. Gainazal epitelio-ehuna.

Praktika 3. Guruin epitelio-ehuna.

Praktika 4. Ehun konektiboa.

Praktika 5. Ehun kartilaginosua eta hezur-ehuna.

Praktika 6. Muskulu-ehuna: leuna eta ildaskatua.

Praktika 7. Nerbio-ehuna.

GELAKO PRAKTIKAK:

Praktika 1. Aurkezpena.

Praktika 2. Epitelio-ehuna.

Praktika 3. Ehun konektiboa.

Praktika 4. Muskulu-ehuna.

Praktika 5. Nerbio-ehuna.

Praktika 6. Integrazioa.

MINTEGIAK:

Animali organografia mikroskopikoa I.

Animali organografia mikroskopikoa II.

Animali organografia mikroskopikoa III.

METODOLOGIA

SAIO MAGISTRALAK: Ikasleek gelan egiten diren aurkezpen guztiak eskuragarri dituzte eGelan.

LABORATEGI PRAKTIKAK: Saio magistraletan deskribaturiko ehunak argi mikroskopiaren bitartez lantzen dira.

GELAKO PRAKTIKAK: Ikasturtearen hasieran proposaturiko aparatu baten berreraketa histologikoa taldean lantzen da.

MINTEGIAK: Talde lanean lorturiko emaitzak azaldu eta eztabaidatzen dira.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	36	3	6	15					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	50	10	15	15					

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20
- Irudien identifikazioa: % 30

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

ETENGABEKO EBALUAZIOAREN SISTEMA. Ikasgaiaren nota hurrengo portzentajeak aplikatuz kalkulatu da soilik hiru ataletan lortutako gutxieneko kalifikazioa 5 baldin bada.

- PROBA IDATZIA %50a. Bukaerako azterketa. Irakasgaiaren eduki guztien azterketa izango da. Galdera eta ariketa mota ezberdinak bildu ditzake. Ebaluazio irizpideak: erantzunaren izaera egokia, terminologia zientifikoaren erabilera, adierazpena eta arrazoibideak. Derrigorrezko jarduera.
- LABORATEGIKO PRAKTIKAK %30a. Irudiak identifikatzeko proben bitartez ebaluatzen da. Kurtsoan zehar hiru proba burutuko dira, proba bakoitzak atal honen kalifikazioaren %20a balio du. Bukaerako azterketaren egunean, beste proba bat egingo da eta honek atal honen kalifikazioaren %40a balio du. Ebaluazio irizpideak: erantzunaren izaera egokia eta irudien identifikazioa eta interpretazio zuzena. Derrigorrezko jarduera.
- GELAKO PRAKTIKAK ETA MINTEGIAK %20a. Talde-lana (atal honetako notaren %70) eta ahozko aurkezpena (atal honetako notaren %30) egin eta ebaluatuko dira. Ebaluazio-irizpideak: Informazioaren antolaketa eta egituraketa, terminologia zientifikoaren erabilera, sintesi eta analisi ahalmenak, aurkezpenaren argitasuna, adierazpen egokia eta komunikaziorako jarrera, baliabide egokien erabilera. Irudiak behar bezala interpretatzea eta identifikatzea. Derrigorrezko jarduera.

UKO EGITEA ETENGABEKO EBALUAZIO SISTEMARI:

Ebaluazio jarraituari uko egin nahi dioten ikasleek, bukaerako azterketan egokitutako tokian adierazi beharko dute azken ebaluazioaren bidez ebaluatzeko nahia. Azken ebaluazioaren sistema aukeratzen duten ikasleek, gelako praktikan eta mintegietan landutako edukiei buruzko azterketa izango dute (ikasgaiaren notaren %20a). Azterketa horrek eta irudien identifikatzeko azterketak (ikasgaiaren notaren %30a) praktiken ebaluazioa osatuko dute (ikasgaiaren %50a).

UKO EGITEA DEIALDIARI:

Azkeneko zein etengabeko ebaluazioaren kasuan, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa <<Ez Aurkeztua>> izan dadin.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere. Jokabide makur eta iruzurrezkoen bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA. Irakasgaiaren nota hurrengo portzentajeak aplikatuz kalkulatu da soilik atal bakoitzeko kalifikazioa 5 edo gehiago baldin bada.

- PROBA IDATZIA %50a: Azterketa. Ebaluazio irizpideak: erantzunaren izaera egokia, terminologia zientifikoaren erabilera, adierazpena eta arrazoibideak.
- PRAKTIKAK ETA MINTEGIAK %50a: Irudiak ezagutzeko probak edota praktikei buruzko ariketak/galderak. Ebaluazio irizpideak: erantzunaren izaera egokia eta irudien identifikazioa eta interpretazio zuzena.

UKO EGITEA DEIALDIARI:

nahikoa izango da azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkeztea azken kalifikazioa <<Ez Aurkeztua>> izan dadin.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere. Jokabide makur eta iruzurrezkoen bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Ortiz-Zarragoitia M, Bilbao E, Izagirre U, Orbea A, Zaldibar B. 2020. Ehunen Biologia. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Alonso E, Badiola I. 2015. Giza histologia orokorra. Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Fawcett DW, Jensch RP. 2008. Bloom eta Fawcett-en Histologiaren Sintesia. EHUpress. Leioa.
- Ross MH, Kaye GI, Pawlina W. 2005. Histología. Texto y Atlas Color con Biología Celular y Molecular. 4. edizioa. Ed. Médica Panamericana. Buenos Aires.
- Junqueira LC, Carneiro J. 2005. Histología Básica. 6. edizioa, Masson SA, Barcelona.
- Young B, Heath JW. 2000. Wheater's Histología funcional. Texto y atlas en color. 4. edizioa.
- Harcourt, Churchill Livingstone, Madrid Kühnel W. 2007. Atlas Color de Citología e Histología. 11. edizioa. Ed. Médica Panamericana. Buenos Aires.
- Krstic RV. 1989. Los tejidos del hombre y de los mamíferos. Interamericana - McGraw-Hill, Madrid.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Stevens A, Lowe J. 2006. Histología Humana. 3. edizioa. Ed. Elsevier. Madrid.
- Gartner LP, Hiatt JL. 2008. Texto Atlas de Histología. 3. edizioa. Ed. Médica Panamericana. Buenos Aires.
- Fawcett DW. 1999. Compendio de Histología. Interamericana McGraw Hill. Madrid.
- Alberts B, Bray D, Hopkin K, Johnson A, Lewis J, Raff M, Roberts K, Walter P. 2006. Introducción a la Biología Celular. Ed. Médica Panamericana. 2. edizioa.
- Alberts B, Johnson A, Lewis J, Raff M, Roberts K, Walter P. 2010. Biología Molecular de la Célula. 5. edizioa, Ed. Omega, Barcelona
- Fawcett DW, Jensch RP. 2008. Bloom eta Fawcett-en Histologiaren Sintesia. EHUpress. Leioa.
- Carrato A, Fernández B. 1987. Organografía microscópica animal. Alhambra. Madrid.
- Welsch U, Storch V. 1976. Estudio comparado de la Citología e Histología Animal. Urmo. Bilbao

Aldizkariak

Annual Review of Cell and Developmental Biology
Cell and Tissue Research
Histochemistry and Cell Biology
Journal of Cell Science

Interneteko helbide interesgarriak

<http://webs.uvigo.es/mmegias/inicio.html>
<http://www.deltagen.com/target/histologyatlas/HistologyAtlas.html>
<http://wzar.unizar.es/acad/histologia/>
<http://www.histologyguide.com>
<http://medcell.med.yale.edu/histology/histology.php>
<http://histology.medicine.umich.edu/full-slide-list>
<http://www.meddean.luc.edu/lumen/MedEd/Histo/virtualhistology.htm>
<https://histology.oit.duke.edu/SlideIndex.html>

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia

310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GBIOL030 - Biologiako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

26833 - Genetika Molekularra

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honetan material heredagarriaren estruktura eta gene eta genomaren funtzionamendua lantzen da izaki eukarioto, bakterio eta birusetan. DNAREN estruktura eta bere ezaugarriak deskribatzen dira bere konportamoldea material genetiko gisa ulertu ahal izateko. DNAREN transmisioan estrukturan inplikazioa analizatzen da, eta material genetikoaren analisi eta manipulaziorako teknika molekular desberdinak deskribatzen dira. Adierazpen genikoaren oinarriak eta bere erregulazioa ezartzen dira, bai eukarioto zein prokariotoetan. DNAREN aldaketak zehaztasunez aztertzen dira, bere konponketa eta aldaketen inplikazioak maila patologiko eta ebolutiboan. Arreta berezia eskeintzen zaizkio aldaketa genetikoetan oinarritutako giza patologiei eta bai giza genomaren ikasketari ere.

Irakasgai honek lehen lauhilabetekoan irakatsitako Genetika irakasgaiaren ikasleek lortutako ezagumenduetan oinarritzen da, eta bai beste oinarritzko irakasgai batzuetan hala nola Biologia Zelularra, Biokimika eta Mikrobiologia. Irakasgai honen edukiak Genetikaren gai espezifikoekin, Ingeniaritza genetikoak eta Genomika kasu, lotzen dira. Landutako edukiak Graduan hautazkoak diren beste irakasgai batzuen oinarri dira.

Genetika molekularra oinarritzkoa da lanbide- edo/eta ikerketa-aritzerako Biozientzietako graduatu guztientzat.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Material heredagarriaren antolaketa ezagutzea, batez ere prokarioto eta eukariotoen gene eta genomaren desberdintasun estrukturalak.
2. DNAn baitan gordetako informazioaren mantenua eta tranferentzia baimentzen duten prozesuak konprenitzea, bai eta aldaketen inplikazio molekular eta patologikoak.
3. Denboran eta espazioan zehar adierazpen genikoaren erregulazioaren beharra ulertzea, eta honetan eukariotoen eta prokariotoen artean ematen diren desberdintasunak.
4. Material genetikoaren analisi oinarritzko teknikak konprenitzea eta erabiltzea, eta diseinu esperimental sinpleetan edo/eta gaurkotasuna duten problema zehatzen ebaazpenerako aplikatzea.
5. Teknologia berrien bidez informazio-iturri desberdinen ezagutzea, kritikoki baloratzea eta erabiltzea, azterpeko materiarekin erlazionatutako informazio zientifikoa lortu, antolatu, interpretatu eta komunikatu ahal izateko.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**EGITARAU TEORIKOA****MATERIAL HEREDAGARRIAREN IZAERA ETA EGITURA**

1. gaia- Material heredagarriaren identifikazioa, izaera eta egitura. Material heredagarriaren betebeharrak. DNAREN bigarren mailako egitura: Watson eta Crick-en helize bikoitzaren ereduak. RNAREN egitura eta motak.

2. gaia- Material heredagarriaren ezaugarri fisiko-kimikoak eta oinarritzko teknika analitikoak. . Desnaturalizazioa eta birnaturalizazioa; hibridazio molekularra. Azido nukleikoen presentziaren determinazioa eta kuantifikazioa. Banaketa molekularra: Zentrifugazioa eta elektroforesia. Teknika osagarriak. Hibridazio molekularrean oinarritutako teknikak. In vivo amplifikazioa. In vitro amplifikazioa: PCR teknika. DNAREN sekuentziak.

3. gaia- Genomaren egitura eta antolaketa. Genoma birikoak eta bakteriarren. Plasmidoak. Genoma eukariotikoak. Organuluen genomak.

4. gaia- Genoma eukariotikoen anatomia. Sekuentzia funtzional ez kodetzaileak, zentromeroak eta telomeroak. Sekuentzia errepikatuak. Geneen egitura eta antolaketa. RNA-gene bakteriarren, gene kodetzaile monozistronikoak eta polizistronikoak (operonak). Gene eukariotikoak. Familia multigenikoak. Geneen eboluzioa.

MATERIAL HEREDAGARRIAREN ERREPLIKAZIOA ETA ALDAKETAK

5. gaia- Material heredagarriaren erreplikazioa. Erreplikazioaren izaera semikontserbakorraren frogak esperimentala. Erreplikazio-egiturak: theta ereduak, zirkulu birakoia, D-loop ereduak. DNAREN sintesia E. coli. DNAREN sintesia eukariotoetan. Kromosoma linealen muturren erreplikazioa eta telomerasaren funtzioa.

6. gaia- Mutazio genikoa. Mutazioa auzazko gertaera gisa: fluktuazio-testa. Mutazio-motak eta mekanismo molekularren. Berezko aldaketak eta aldaketa induzigarriak. Mutagenizitatearen detekzioa: Ames testa. Mutazioen konponketa-mekanismoak.

7. gaia- Elementu genetiko mugikorren mutazio puntualen eta berrantolaketa kromosomikoen iturri gisa. Elementu

transposagarriak eta transposizio-mekanismoa prokariotoetan. Elementu transposagarriak eukariotoetan. Elementu transposagarrien eragina genoman.

MATERIAL GENETIKOAREN ADIERAZPENEA ETA HONEN ERREGULAZIOA

8. gaia- Transkripzioa. Transkripzioaren prozesua: Hasiera-, luzapena- eta amaiera-mekanismoak. Transkripzioaren prozesua eukariotoetan. Prokariotoen eta eukariotoen transkripzioaren arteko desberdintasunak. RNAREN eraldaketak. Esplizin alternatiboa.

9. gaia- Itzulpena eta gene-kodea. Gene-kodearen deskripzioa eta ezaugarriak. tRNA, rRNA eta erribosomak. Itzulpen-prozesua prokariotoetan eta eukariotoetan. Proteinen eboluzioa.

10. gaia- Adierazpenaren erregulazioaren oinarriak prokariotoetan. Adierazpen genikoaren erregulazioaren mailak. Ikuspegi orokorra: kontrol positiboa/negatiboa. Sistema induzigarriak: lac operonaren kontrol positiboa eta negatiboa. Sistema erreprimigarriak: Triptofanoaren operonaren kontrol negatiboa eta atenuazio bidezko kontrola. Beste erregulazio-mekanismo batzuk: riboetengailuak.

11. gaia- Adierazpenaren erregulazioaren oinarriak eukariotoetan. Adierazpen genikoaren erregulazio-mailak. Kromatinaren erregulazioa. Transkripzioaren aktibatzaile espezifikoak: erantzun-elementuak. Promotore alternatiboak, esplizin alternatiboa, eta poli-A isats alternatiboa. Transkripzio ondoko eta itzulpenaren erregulazioa. RNAREN isilpena.

GENETIKA MOLEKULARREKO GAI AURRERATUAK

12. gaia-Genomika. Sekuentziazio-metodo berriak. Genomen sekuentziazio-estrategiak. Genomen sekuentziaziorako proiektuak. Genomika funtzionala: adierazpen analisiak eta aldakortasun-analisiak. Bioinformatika gene eta genomen analisian.

13. gaia- Minbiziaren genetika. Minbiziaren ezaugarri orokorrak. Protoonkogeneak eta tumoreen gene supresoreak. Minbizirako joera heredagarria. Analisi genomikoak eta aplikazio klinikoak. Minbiziaren genetikaren adibideak.

14. gaia- Ingeniaritza genetiko eta DNA birkonbinatuaren aplikazio bioteknologikoak: definizioa eta helburuak. Geneen analisi eta maneirako sistema orokorra. Gene heterologoaren adierazpenaren kontrola. Aplikazioak oinarritzko ikerketan eta bioteknologian. Terapia genikoa.

PRAKTIKEN EGITARAUA

P1.- PCR bidezko tPA genearen Alu sekuentziaren insertzioaren analisi genotipiko eta populazioarena eta auzitegi-aplikazioak.

P2.- Kozinatutako haragi-laginetan espezieen detekzio eta karakterizazioa, mtDNAREN PCR multiplexaren bidez.

P3.- Mutagenesi-entseiuak (I): Arlekin itxurako kromosomak eta Kromatida Ahizpen Trukaketa (SCE)

P4.- Mutagenesi-entseiuak (II): Ames testa

S-1.- Mutazioen identifikazioa eta bere detekzioarako diseinu esperimentalak giza-gaixotasunetan

S-2.- Giza gaixotasunen oinarri molekularra

METODOLOGIA

Irakasgaiak irakaskuntz-modalitate desberdinetaz baliatzen da:

- Eskola magistralen bidez kontzeptu teorikoak eta ariketak azalduko dira.
- Bestalde, ariketa berezien ebazpena, laborategiko praktikak eta mintegiak talde-lanean egingo dira. Bertan, diseinu esperimentalean, kasu praktikoen ebazpenean eta patologien garapenera eraman dezaketen agente eragileen oinarrietan sakontzen da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35	5	5	15					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	55	15	15	5					

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNekoAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 20
- Test motatako proba % 20
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Talde lanak (arazoaren ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO JARRAITUA

Laborategiko praktikak eta mintegiak nahitaezkoak dira ebaluazio-mota honetan.

Sistema hau ondoko probaz osatuta dago:

(1) Bukaerako proba idatzia (azken notaren %60a balioko duena), test-galderez, galdera laburrez eta ebazteko ariketez osatua. Atal bakoitzean 4 puntu (10 puntutik) atera behar dira gutxienez.

(2) Egindako lan esperimentalari eta bestelako talde lanei dagozkien talde-txostenak. Talde-jardueretan partaidetza eta inplikazioa kontutan hartuko dira. Gutxieneko nota 5 izango da.

AMAIERAKO EBALUAZIOA

Ebaluazio-sistema hau izateko, ikasleak irakasgaiaren arduradunari idazki bat helarazi behar dio ebaluazio jarrairi uko eginez, beti ere irakasgaiaren hasiera datatik 9 asteko epean.

Etengabeko ebaluazioari uko eginez laborategiko eta mintegiei buruzko galderak sartuko dira bukaerako azterketan.

ETIKA AKADEMIKOA

Irakasgaiako ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere, kalkulagailuak izan ezik. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

DEIALDIAK

Azkeneko zein etengabeko ebaluazioaren kasuan, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "Ez aurkeztua" izateko.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez-ohiko deialdian, ebaluazio-sistema ohiko deialdikoaren berdina izango da. Etengabeko ebaluazioan lortutako emaitza positiboak mantenduko dira. Etengabeko ebaluazioak emaitza negatiboak eman baditu, amaierako idatzizko proba kalifikazio osoaren %100a izango da.

ETIKA AKADEMIKOA

Irakasgaiako ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere. [Bakarrik baimentzen da kalkulagailua eramatea*]. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

DEIALDIAK

Ez-ohiko deialdiaren ebaluazio-sistema, ohiko deialdian egiten denaren berdina izango da. Ikaslea proba honetara aurkezten ez bada, deialdi horretan "Ez Aurkeztua" agertuko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak ondoko materiala eskainiko die ikasleei:

TEORIA ESKEMAK ETA IRUDI-BILDUMA eskola magistralen jarraipena errazteko.

ARIKETEN BILDUMA. Bilduma honetan oinarriturik ikasgelan zenbait ariketa ebatziko dira, gainerakoak lan pertsonala eta talde-lana egiteko material gisa erabiliko dira.

MINTEGIAK EGITEKO PROTOKOLOAK. Jarduera bakoitzaren helburuak eta haiek egiteko beharrezko dokumentazio guztiarekin.

LABORATEGIKO PRAKTIKEN PROTOKOLOAK. Bertan, laborategian bete behar diren urrats esperimentalak deskribatzeaz gain, praktika bakoitzak duen helburua eta bere oinarri teorikoak azalduko dira. Praktikak egin aurretik gomendagarria da protokoloen irakurketa.

Materiala ikasleei helaraziko zaie edo/eta irakasgaiaren gela birtualean eskegita egongo da.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- *BENITO C., ESPINO FJ.(2012) Genética. Conceptos esenciales. 1ª Ed. Médica Panamericana
- *BROOKER R.J. (2012) Genetics. Analysis & Principles. 4th edition McGraw Hill. www.mhhe.com/brooker
- *HERRÁEZ A. (2012) Biología Molecular e Ingeniería Genética. 2ª ed. Elsevier
- *GRIFFITHS AJF, WESSLER SR, CARROLL SB, DOEBLEY J (2015) An introduction to genetic analysis. 11th edition. FREEMAN AND CO (978-1429229432)
- *HARTL DL, JONES EW (2011) Genetics. Analysis of Genes and Genomes. Jones and Bartlett Publishers 8/e. (ISBN: 978-1449635962)
- *HARTWELL L, GOLDBERG L, FISCHER JA, HOOD L, AQUADRO CF (2010) Genetics. From Genes to Genomes. 5nd edition. McGraw-Hill (ISBN-978-0073525310)
- *KLUG, WILLIAM S; CUMMINGS, MICHAEL R.; SPENCER, CHARLOTTE; PALLADINO MICHAEL A. (2008). Concepts of Genetics. 9ª edición. Pearson Higher Education. <http://www.aw-bc.com/klug/>
- *PIERCE B.A. (2014) Genética. Un enfoque conceptual. 5ª ed. Editorial Médica Panamericana
- *PIERCE, B.A. (2015) Genetics Essentials: Concepts and Connections. (3rd Ed.). W. H. Freeman and Co. ISBN: 1464190755

Gehiago sakontzeko bibliografia

- *BROWN T.A. (2007) Genomes 3. 3rd edition. Garland Science Publishing.
- *LEWIN B. (2009) Genes IX. Jones and Bartlett Publisher
- *STRACHAN, T., READ, A. (2010). Human Molecular Genetics. 4rd ed. Garland Publishing.

Aldizkariak

Nature Review Genetics
Nature
Science
PLOS Genetics,
G3: Genes-Genomes-Genetics,
BioMedCentral
Heredity
Trends in Genetics

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/omim>
<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed>
<https://www.ensembl.org>
<http://www.bioinformatics.nl/primer3plus>
<http://www.geneclinics.org/>
http://www.biologia.arizona.edu/molecular_bio/problem_sets/Recombinant_DNA_Technology/recombinant_dna.html
<http://www.accessexcellence.org/RC/VL/GG/>
<http://www.dnafb.org/>
http://web.ornl.gov/sci/techresources/Human_Genome/education/index.shtml
<http://www.genome.gov/GlossaryS/>

OHARRAK

Bestelako esteka interesgarriak:

www.genome.gov/sglossary.cfm
teknopolis.elhuyar.org
www.zientzia.eus

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia

310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztuqabea

Plana

GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

26714 - Genetika

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Genetika ezaugarri biologikoen transmisioarekin lotutako lehen irakasgaia da; Biologia, Biokimika eta Biologia Molekularra eta Bioteknologiako Graduetan ematen da. Herentzia genetikoaren oinarritzko edukiak aurkezten ditu eta ezagutzen diren herentzia motak, eta organismo desberdinetan erabiltzen diren analisi metodologiak ere.

Irakasgaia, batik bat, organismo eukarioten analisi genetikoan oinarritzen da, eta Mendelen herentziaren oinarriak eta genotipo/fenotipo erlazioa nola aldatzen diren aztertzen ditu. Horrez gain herentziaren egoera konplexuago batzuk ere lantzen eta aztertzen dira, halaber, sekuentzia genikoan eta kromosomen, egituraren eta kopuruan, gertatzen diren aldaketek eragin ditzaketen ondorioak. Baita ere hobekuntza genetikoaren oinarriak animalia eta landareetan, eta populazioen genetikaren alderdi nagusiak. Horren sakon ez bada ere, informazio genetikorako transferentzia mekanismoak aztertzen dira bakterioetan eta birusetan, eta haien eboluzio eta osasun ondorioak. Horrez gain, kasu praktikoak ebazteko prozedurak lantzen dira; horretarako heredagarriak diren ezaugarrien adibideak erabiltzen dira, egiazkoak edo fikziozkoak, hainbat eukariota espezieetan eta giza espeziean ere.

Taldean lantzen diren prestakuntza baliabideak erabiltzen ditu irakasgaiak, eta horiei esker, ikaskuntza autonomia sustatzen da, gaiarekiko interesa piztuz. Lan kooperatiboan banakoen erantzukizuna lantzen da, ahozko eta idatzizko komunikaziorako gaitasunak garatzen dira eta pentsamendu kritikoa eta arrazoitzeak bultzatzen dira.

Irakasgaia egiteko, ez dira Genetika arloko alde aurreko ezagutzak behar, baina komenigarria da Batxilergoan Biologia irakasgaia ikastea eta Biozientziako graduetako 1. urteko irakasgai batzuen oinarritzko ezagutza izatea (besteak beste, Zelulen Biologia eta Biokimika), baita Bioestatistikan landutako probabilitateen kalkulua ere, eta Batxilergoko Matematika. Oinarritzko izaera kontuan hartuz, irakasgai honetako edukiak funtsezkoak dira genetika arloko nahitaezko edo/eta hautazko irakasgaietan aurrera egiteko eta Biozientzia Graduetako beste arlo batzuetako irakasgaietan ere, besteak beste, Biologia Molekularra, Zelulen Biologia, Antropologia edo Mikrobiologia.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgai honen ikaskuntzako emaitzak direla eta, ikasleek

1. Herentziaren oinarritzko hastapenak ulertu eta aplikatu egiten dituzte ezaugarrien transmisio kasu bakunak zuzen ebazteko.
2. Ulertzen dute zer-nolako eragina duen herentziarako bi geneen arteko loturak, gene askoren elkarreraginak, ingurumenaren eraginak geneen adierazpenean, e.a. eta ezagutu eta interpretatzen dituzte, arrazoituz, transmisio konplexuak erakusten dituzten ezaugarri biologikoak.
3. Aldaketa genetiko eta epigenetikoen oinarri molekularrak ulertu, eta adierazpen fenotipikoan dituzten ondorioak ezagutzen dituzte.
4. Ezaugarri kuantitatiboaren herentzian eta populazioen eboluzioan eragiten duten faktoreak identifikatzen dituzte, eta gai dira, oinarrian bada ere, hautatze indarren edo beste indar ebolutibo batzuen menpe dauden ezaugarrietan gertatutako dena auresateko.
5. Kooperatiboki ebazten dituzte aholkularitza genetikoaren arloko kasu errazak, berriazko bibliografia maneiatu.
6. Ikerketa-lan xumeak diseinatu, planifikatu eta burutzen dituzte, eta, ondoren, artikuluko zientifiko gisa aurkezten dituzte.
7. Laborategian lan segurua egiteko trebetasunak garatzen dituzte, eta konposatu kimiko eta agente biologikoak eta sortzen diren hondakin kimiko eta biologikoak zuzen erabiltzen dituzte.
8. Baliozko ondorioak modu kritikoa garatzen dituzte (arrazoibidez eta justifikatuz), eskuratutako informazioaren kudeaketa eraginkor eta integralaren bitartez.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**IKASGAI TEORIKOAK****SARRERA**

1. gaia.- Sarrera historikoa. Genetikaren definizioa. Genetikaren arloak. Oinarritzko kontzeptuak

GENEEN TRANSMISIOA**ZATIKETA ZELULARRA, KROMOSOMAK ETA GEN BATEN EDO HAINBATEN HERENTZIAREN OINARRIZKO HASTAPENAK**

2. gaia.- Kromosomen topografia eta Zelula-zatiketa: Mitosia eta Zelula-zikloa. Meiosia eta ugalketa sexuala.
3. gaia.- Gene bakarraren herentziaren oinarritzko hastapenak. Mendelen herentzia. Mendelen metodo esperimentalak. Gurutzamendu monohibridoa: aleloen segregazio baliokidearen hastapena. Dominantzia eta errezesibitatea. Proba gurutzamendua eta bere garrantzia. Probabilitatea eta gertaera genetikoak. Pedigrien analisia.
4. gaia.- Hainbat gene independenteren herentziaren oinarritzko hastapenak. Segregazio independentearen hastapena. Gurutzamendu dihibridoa eta polihibridoa. Proba gurutzamendua hainbat genetan. Datu genetikoen ebaluazioa: Chi-karratuaren analisia. Herentziaren teoria kromosomikoa.

5. gaia.- Sexu kromosometan kokatutako geneak: sexuarekiko lotura. Pedigrien analisia. Zehaztapen genikoa eta sexu desberdintzea. Beste egoera batzuk: mitokondrietan eta kloroplastoetan kokatutako geneak.

GENE LOTUAK ETA MAPA GENETIKOAK

6. gaia.- Gene lotuen herentzia. Kromosoma berean kokatutako geneen lotura osoa edo partziala. Errekonbinazio meiotikoa eta mapaketa genetikoa. Hiru puntutako mapaketa. Interferentzia eta kointzidentzia koefizientea.

GENEEN ADIERAZPENEA

ELKARREKINTZAREN ONDORIOAK ADIERAZPEN FENOTIPIKOAN

7. gaia.- Elkarrekintza alelikoa eta genikoa. Elkarrekintza alelikoa: dominantzia osoa, dominantzia partziala eta kodominantzia. Alelismo anizkoitza eta alelo letalak. Pleiotropia. Sexuak baldintzatutako eta mugatutako herentzia. Elkarrekintza genikoa: epistasiak, fenotipo berriak, beste azalpen batzuk. Osagarritasunaren analisia.

8. gaia.- Adierazpen fenotipikoaren aldakortasuna. Sarkortasuna eta adierazkortasuna. Hondo genetikoen eragina eta ingurunearen eragina. Epigenetika: inpronta, X kromosomaren inaktibazioa eta minbizia.

9. gaia.- Genetika kuantitatiboa. Herentzia poligenikoa. Ezaugarri kuantitatiboak aztertzeko metodo estatistikoak. Heredagarritasuna eta estimazio metodoak.

KROMOSOMEN ALDAKORTASUNA EUKARIOTOETAN

10. gaia.- Aldakortasuna kromosomen egiturari. Mekanismoak eta tipoak. (a) Delezioak (b) Duplikazioak (c) Inbertsioak: perizentrikoak eta parazentrikoak (d) Translokazioak.

11. gaia.- Aldakortasuna kromosomen kopuruan. (a) Euploidia: monoploideak, diploideak, poliploideak. Autopoliploidia eta alopoliploidia (anfiploideak) (b) Aneuploidia: nulisomiak, monosomiak, trisomiak. (c) aneuploide somatikoak: mosaikoak vs. kimerak.

POPULAZIOEN GENETIKA

12. gaia. Populazioen genetika. Maiztasun alelikoak eta genotipikoak. Hardy-Weinberg oreka. Oreka proba. Gurutzamendu ez-aleatorioak: odolkidetasuna. Maiztasun genikoak aldatzen dituzten prozesuak. Mutazio. Migrazioa. Jito genetikoa: fundazio efektua eta botila lepoak. Hautespen naturala, fitnessa eta maiztasun alelikoen aldaketa.

ANALISI GENETIKOA BAKTERIOETAN

13. gaia.- Analisi genetikoa bakterioetan. Errekonbinazioa bakterioetan. Transferentzia genetikoen mekanismoak: (a) Konjugazioa: F+ eta Hfr anduiak. F' faktorea eta sexdukzioa (b) Transformazioa: faseak (c) Transdukzio orokorra eta mugatua. Mapa genetikoen eraikuntza bakterioetan. Errekonbinazioa bakteriofagoetan: errekonbinazio-maiztasunen ezarpena eta mapa genetikoen eraiketa.

LABORATEGIKO PRAKTIKAK ETA MINTEGIAK

P1- Giza kariotipoaren behaketa eta analisia

M1- Aholkularitza genetikoen kasu praktiko bat

P2- Mutanteen identifikazioa Drosophilan

M2- Diseinu esperimentalak Drosophilan bi ezaugarri fenotipikoen herentzia ezartzeko

P3- Gurutzamendu bideratuak Drosophilan eta deszendentziaren analisi fenotipikoa

METODOLOGIA

Irakasgaiak 4 irakaskuntz-jarduera presentzial erabiltzen ditu (eskola magistralak, ikasgelako praktikak, laborategiko praktikak eta mintegiak); hainbat jardueran egiten dira haietan.

- Klase magistraletan genetikaren oinarriko kontzeptu teorikoak eta horien aplikazioa lantzen dira, ezaugarri kualitatibo eta kuantitatiboaren transmisioan zentratutako kasu praktikoak ebatziz.

- Mintegietan, ikasgelako praktiketan eta laborategiko praktiketan, ikasleak aholkularitza genetikoen eta esperimentazioaren hastapenak ikasten ditu. Besteak beste, hipotesiak egitea, esperimentu bat diseinatzea eta gauzatzea, emaitzak tratatzea eta azterzea, eztabaida eta ondorioak lantzea, eta artikulatu zientifikoak idaztea. Jarduerak horiek 4 pertsonako taldeetan egiten dira, eta taldeak lauhileko osoa iratuten du.

Irakasle taldea erabat koordinatuta dago egiten diren jarduerak moten eta horien ordutegiari dagokienez, bai irakasgai bereko taldeen artean, bai lauhileko bereko ikasgaien artean.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35	5	5	15					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	55	15	15	5					

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 20
- Test motatako proba % 20
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Etengabeko ebaluazio sistemak taldeko prestakuntza-jarduera ugari eta banakako azken azterketa ditu:

1) Taldean idatzitako proben barruan sartzen dira problema teoriko-praktikoak ebaztea eta laborategiko eta mintegiko saioretan egindako lanen memoriak azken kalifikazioan % 40ko pisuarekin. Talde jardueren ebaluazioa banakakoa izango da, eta taldearekiko konpromisoa eta inplikazio pertsonala baloratuko dira. Ikasgaia gaintzeko, taldeko jardueretan gutxienez % 80ko parte-hartzea eta gutxienez 5eko nota izatea eskatzen da.

2) Azken proba idatziak, ikasgaiaren nota orokorren % 60 balio izango duenak, tets moduko, galderak, galdera laburrak eta bi ariketa izango ditu. Ikasgaia gaintzeko atal bakoitzean 4,0 puntu (10 puntutik) gutxienez atera beharko da. Ebaluazio-araudiaren arabera, ikasleek amaierako ebaluazio baten bidez ebaluatzeko eskubidea izango dute, etengabeko ebaluazioan parte hartu duten ala ez kontuan hartu gabe. Horretarako ikasleek eskaera idatzi bat egin beharko dute, lauhilekoa hasi eta gehienez 9 aste epean. Hala ere, irakaskuntza- jardueraren antolaketa dela eta, komenigarra da irakaskuntza-aldiaren lehen 3 asteetan uko egiteko asmoa adieraztea.

Laborategiko praktikak eta mintegiak nahitaezkoak dira. Horiei dagokien ebaluazioa "Etengabeko Ebaluazioa" atalean deskribatzen da. Etengabeko ebaluazioari uko eginez gero, laborategiko praktikei eta mintegiei buruzko galderak sartuko dira amaierako azterketan.

Irakasgaiako amaierako proban, ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta telefono, elektronikak, informatika edo bestelako tresna edo gailuak erabiltzea ere. Kalkulagailua bakarrik eraman daiteke. Jokabide maltzurra eta iruzurrezkoa gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio-probetan eta lan akademikoetan etika akademikoari eta jokabide kaltegarri eta iruzurrezkoen prebentzioari buruzko protokoloan ezarritakoa aplikatuko da. Amaierako ebaluazioaren zein etengabeko ebaluazioaren kasuan, nahikoa izango da ez aurkeztea amaierako kalifikazioa <<Ez Aurkeztua>> izateko.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez-ohiko deialdian, bai amaierako ebaluazio-proba zein ebaluazio-sistema ohiko deialdikoaren antzekoak izango dira. Etengabeko ebaluazioan lortutako emaitza positiboak mantenduko dira. Etengabeko ebaluazioak emaitza negatiboak eman baditu, amaierako idatzizko proba kalifikazio osoaren %100 izango da.

Ikasgaiaren amaierako proban, ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta telefono, elektronikak, informatika edo bestelako tresna edo gailuak erabiltzea ere. Kalkulagailua bakarrik eraman daiteke. Jokabide maltzurra eta iruzurrezkoa gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio-probetan eta lan akademikoetan etika akademikoari eta jokabide kaltegarri eta iruzurrezkoen prebentzioari buruzko protokoloan ezarritakoa aplikatuko da. Nahikoa izango da azken proba ez aurkeztea amaierako kalifikazioa <<Ez Aurkeztua>> izateko.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

IRAKASLEAK ONDOKO MATERIALA ESKAINIKO DIO IKASLEARI:

TEORIA ESKEMAK ETA IRUDI BILDUMA eduki teorikoei buruzko eskolen jarraipena errazteko.

PROBLEMA BILDUMA. Bilduma oinarrizko materiala izango da kasuak ebazten ikasteko; ikasgelan erabiliko da eskola magistraletan, eta ikasleak lan pertsonala egiteko material gisa erabiliko du.

LABORATEGIKO PRAKTIKEN PROTOKOLOA: jarduera bakoitzaren helburuak sartzen dira, oinarri teorikoa, haien garapen teknikoa eta ikasleek erantzun behar dituzten galdera batzuk praktikan zehar edo hura amaitutakoan. Ezinbestekoa da protokoloa irakurtzea praktika egin aurretik.

MINTEGIAK EGITEKO PROTOKOLOA: jarduera bakoitzaren helburuak eta haiek egiteko beharrezko dokumentazio guztia sartzen da.

Dokumentazioa ikasleek erabiltzeko moduan egongo da irakasgaiaren ikasgela birtualean, behar adinako aurrerapenez.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- BENITO C (2013) Genética. Conceptos esenciales. Editorial Panamericana (978-84-9835-407-2)
- BROOKER RJ (2017) Genetics. Analysis & Principles. 6/e. McGraw Hill (978-1259921650)
- GRIFFITHS AJF, WESSLER SR, LEWONTIN RC, CARROLL SB. (2008) Genética. 9º edición. McGraw-Hill-Interamericana (978-8448160913)
- GRIFFITHS AJF, WESSLER SR, CARROLL SB, DOEBLEY J (2015) An introduction to genetic analysis. 11/e. FREEMAN AND CO (978-1429229432)
- HARTL DL, JONES EW (2017) Genetics. Analysis of Genes and Genomes. Jones and Bartlett Publishers 9/e. (978-1449635962)
- HARTWELL L, GOLDBERG L, FISCHER JA, HOOD L, AQUADRO CF (2017) Genetics. From Genes to Genomes. 6nd edition. McGraw-Hill (978-0073525310)
- KLUG WS, CUMMNINGS MR, SPENCER CA, PALLADINO MA (2014) Conceptos de Genética 11/e. Pearson (978-0321948915)
- KLUG WS, CUMMNINGS MR, SPENCER CA, PALLADINO MA. KILLIAN D (2019) Concepts of Genetics (978-1292265322)
- PIERCE BA (2020) Genetics: A Conceptual Approach. Freeman & Company. 7/e
- PIERCE BA (2016) Genética. Un enfoque conceptual. Editorial Panamericana 5ª edición
- PIERCE BA (2021) Genetics Essentials. Concept and Connections. 5/e. MacMillan 9781319383367
- PIERCE BA (2011) Fundamentos de Genética. Conceptos y relaciones. Editorial Panamericana

Gehiago sakontzeko bibliografia

PROBLEMA-ZERRENDAK DITUZTEN LIBURUAK INGELESEZ ETA GAZTELANIAZ

- BENITO JIMENEZ, C. (1997) 360 Problemas resueltos paso a paso. Ed. Síntesis
- CONKITE, D. (2008) A problem-based guide to Basic Genetics. Ed. Thomson.
- MENSUA J. L. (2003) Genética. Problemas y ejercicios resueltos. Ed Pearson
- STANSFIELD, W.D. (1984) Genética. Teoría y 440 problemas resueltos. Ed. MacGraw-Hill (2ª edición)
- VISERAS ALARCON, E. (1990) Problemas resueltos de Genética General. Ed. Universidad de Granada.

Aldizkariak

Elhuyar (<http://www.zientzia.net/elhuyar.asp>)
Nature Review Genetics
Nature
Science

Interneteko helbide interesgarriak

<https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=397>
<https://www.ucm.es/genetica1/apuntes-de-genetica>
www.segenetica.es/docencia.php
www.ncbi.nlm.nih.gov/sites/entrez?db=omim
www.biologia.arizona.edu/mendel/mendel.html
www.genome.gov/sglossary.cfm
teknopolis.elhuyar.org/
www.zientzia.eus/

OHARRAK

<https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=397>
<https://www.ucm.es/genetica1/apuntes-de-genetica>
www.segenetica.es/docencia.php
www.ncbi.nlm.nih.gov/sites/entrez?db=omim
www.biologia.arizona.edu/mendel/mendel.html
www.genome.gov/sglossary.cfm
teknopolis.elhuyar.org/
www.zientzia.eus/

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia

310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztu gabea

Plana

GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

26713 - Mikrobiologia

ECTS kredituak:

6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Mikrobiologia bizitzaren zientzietako irakasgaia da, zeinean mikroorganismoen oinarrizko alde teorikoak eta praktikokoak aztertzen diren.

Biologia graduaren beste irakasgaiekin, adibidez Biokimika, Biologia zelularra, Genetika eta Ekologia irakasgaiekin, oso erlazionaturik dago.

Mikrobiologia irakasgaia gaindituta izatea gomendatzen da Mikrobiologia-rekin oso estu erlazionaturik dauden Biologia graduaren beste irakasgaiak egin baino lehen. Irakasgai hauek Mikroorganismoen Dibertsitatea, Mikrobio Fisiologia, Ingurumen Mikrobiologia eta Mikrobiologia Aplikatua dira.

Lortutako gaitasunak funtsezkoak dira zenbait eremu profesional garrantzitsuen garapenerako, adibidez, ikerkuntza, osasuna, farmazia industria, nekazaritza, kimika industria, ingurumena, edota irakaskuntza eremuak.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**GAITASUN ESPEZIFIKOAK:**

1. Mikrobiologiaren oinarrizko alderdi teorikoak ezagutzea bi helburu nagusiri begira: Biosferaren mantenimenduan mikroorganismoen garrantzia ulertzea eta munduko gaur egungo arazoaren konponketarako mikroorganismoen erabilera ezagutzea.
2. Prokariotoen morfologia, egiturak, energia lortzeko jarduerak eta hazkuntza analizatzea, beraien portaera naturan ulertzeko.
3. Esterilizazio, desinfekzio eta antisepsia kontzeptuak bereiztea, eta mikroorganismoen hazkuntza kontrolatzeko nola erabiltzen diren ezagutzea.
4. Lagin mikrobiologikoekin lan egiteko oinarrizko teknikak ezagutzea eta erabiltzea: laginen manipulazioa, eta mikroorganismoen detektzioa, zenbaketa eta identifikazioa.
5. Mikroorganismoekin lan egiteko segurtasun arauak ikastea, hondakin biologikoen manipulazio eta ezabapenaren aspektu praktikokoak barne.

ZEHARKAKO GAITASUNAK:

1. Análisi, sintesi, antolaketa eta plangintza gaitasunak garatzea.
2. Pertsonen arteko harremanen gaitasuna garatzea, taldeko lana hobetzeko.
3. Arrazoibide zuhur eta kritikoa lantzea.
4. Ikaskuntza autonomia ahalbidetuko duten tresnak eskuratzea.

IRAKASGAIA IKASKETERAEN EMAITZAK:

Ikasleak mikroorganismoen garrantzia (bereziki prokariotoena) eta naturan beraien portaera argudiatzeko gai izango dira egiturei, aniztasun metabolikoari eta hazkuntza-estrategiei buruz eskola teoriko magistraletan harturiko ezagueretaz oinarririk. Irakasgaiaren irakaskuntza teorikoaren azterketaren bidez ebaluatuko da.

Ikasleak mikrobiologiaren aspektu desberdinei buruzko informazioa erabiltzeko gai izango dira. Ikasleek prokariotoen arteko material genetikoaren elkartrukearen mekanismoen eta prokariotoen egitura batzuen informazioa bete beharko dute eta ikasgelan egiten diren mikrobio-metabolismoarekin eta hazkuntzarekin erlazionaturiko ariketeetan parte hartuko dute. Ikasgelan ariketak burutzerakoan edota irakasgaiaren irakaskuntza teorikoaren azterketaren bidez ebaluatuko da.

Ikasleak mikrobiologiaren aspekturen batekin erlazionaturiko informazioa hautatzeko eta jendeaurrean terminologia egokia erabiliz kontzeptu mikrobiologikoak aurkezteko gai izango dira. Burutzeko jarduera Mintegiaren lanean parte hartzean

datza. Idatzitako txostenaren egokitasuna, ahots-aurkezpena eta lantaldean parte hartze aktiboa kontuan hartuta ebaluatuko da.

Ikasleak ingurune ziur batean mikroorganismoak detektatzeko, kuantifikatzeko eta identifikatzeko gai izango dira. Laborategiko praktiketan zehar ikasleek laginak ondo manipulatzeko, lanpostuaren garbitasuna eta ordena, materialaren esterilizazio/desinfekzio egokia eta hondakinen ezabapen egokia ikasiko dituzte. Laborategian portaeraren ebaluaketa jarraian bidez eta azterketaren bidez ebaluatuko da.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Eskola teorikoa:

1. Mikroorganismoen mundua.

Mikroorganismoak: zer dira? Mikroorganismoen ezaugarriak. Mikrobiologiaren historia: etapa inportanteenak.

2. Mikroorganismo prokariotoen egitura eta funtzioa.

Morfologia. Prokariotoen osagaiak. Azaleko geruzak. Horma zelularra. Luzakinak. Flageloak. Mugimendua. Mintz plasmaticoa. Protoplasma: zitoplasmako partikulak. Nukleioidea eta zelulen zatiketa.

3. Prokariotoen elikadura-aniztasuna.

Elikapenerako funtzezko osagaiak. Elika-mailak energia iturriaren, elektroi iturriaren, karbono iturriaren eta hazkuntza faktore behararen arabera. Oxigeno molekularren beharra.

4. Mikroorganismoen metabolismoak.

Metabolismoaren eskema orokorra. Erredox erreakzioak. Elektroi-garraiataleak. Energiaren sorrera. Metabolito aitzindariak.

5. Kimioorganotrofia.

Metabolismo nagusia. Arnasketa aerobioa eta anaerobioa. Hartzidurak. Azukreak ez diren konposatuak erabilera.

6. Kimiolitotrofia eta fototrofia.

Kimiolitotrofoen ezaugarri orokorrak. Kimiolitotrofo motak. Fototrofia eta fotosintesia. Bakterioen fotosintesia: ezaugarriak eta motak. Sistema fotosintetizatzaileen osagaiak. Fotosintesi oxigenikoa eta anoxigenikoa.

7. Nitrogeno, sofre eta fosforoaren asimilazioa.

Erreduzio asimilatorioa eta disimilatorioa. Nitrogenoaren asimilazioa. Sufrearen asimilazioa. Fosforoaren asimilazioa.

8. Mikroorganismoen hazkuntza kontrolpeko baldintzetan.

Banako hazkuntza eta populazioen hazkuntza. Populazioen hazkuntzaren neurketa. Populazio baten hazkuntza lerroa. Kultibo jarraia.

9. Mikroorganismoen hazkuntza ingurune naturaletan.

Ingurune baldintzen eragina. Mikroorganismoen biziraupena. Zelula jarkikorak: bakterioen endospora.

10. Mikroorganismoen kultiboak eta kontrolak.

Kultibo medioak: osagaiak, motak eta funtzioak. Inkubazio baldintzak. Mikroorganismoen kontrolak: eragile fisikoak, kimikoak eta kimioterapeutikoak.

11. Prokariotoen arteko material genetikoaren elkartrukea.

Aldakortasun genetikoko mekanismoak. Mutazioa. Errekonbinazio genetikoa. Transformazioa. Transdukzioa. Konjugazioa.

Eskola praktikoa:

1. Babes-neurri mailak.

C2 motako laborategian agente biologikoekin lan egiteko oinarritzko jarraibideak.

2. Kultibo medioak eta mikroorganismoen metabolismoak.

Kultibo medio motak eta konposaketa. Kultibo medioen funtzioa. Kultibo medio hautagarriak eta bereizgarriak: emaitza-interpretazioa. Proba biokimikoak.

3. Mikroorganismoen ubikuotasuna.

Aireko mikroorganismoak. Gizakion mikrobiota. Naturako mikroorganismoak.

4. Mikroorganismoen ereinketa.

Ereinketa metodoak kultibo medio solidoetan. Ereinketa metodoak kultibo medio likidoetan.

5. Mikroorganismoen behaketa.

Mikroorganismoen ezaugarri makroskopikoak. Mikroorganismoen morfologia mikroskopikoa: tindaketa sinplea, negatiboa, Gram, azido alkohol erresistentea (Ziehl Neelsen). Behaketa "in vivo".

6. Bakterio-egituren behaketa.

Esporen tindaketa.

7. Mikroorganismoen zenbaketa.

Diluzioen erabilera. Ereinketa kultibo medio solidoan.

METODOLOGIA

Irakaskuntza-metodo desberdinak konbinatzen dira. Oinarrizko metodo gisa azalpen-eskola erabiliko den arren, beste jarduera batzuk ere garatuko dira: laborategiko praktikak, ikasgelan ariketen ebazpenerako klase praktikoak, talde txikietan irakaskuntza kooperatiboaren bidez mintegi motako lanen prestaketa eta ahozko aurkezpenak, eta irakasgaien aspektu zehatzi buruzko norbanako prestaketa.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35	5		20					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	52,5	7,5		30					

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 60
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 30
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai honetako ebaluazio arauak dokumentu honetan oinarritzen dira: Graduako Titulazio Ofizialeko Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia (<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2017001311>).

"Etengabeko ebaluazioa" da irakasgai honetan nagusiki erabili beharreko ebaluazio sistema.

Irakaskuntza teorikoaren ebaluazioa (%60, gutxieneko nota: 5/10) test motatako galderaz osatutako azterketa teoriko bakarraren bitartez egingo da.

Irakaskuntza praktikoaren ebaluazioa (%30, gutxieneko nota: 5/10) bi atalez osatuta egongo da: 1) lortutako abilezien ebaluazioa, azterketa praktikoa baten bidez; 2) ikasitako kontzeptuen aplikazioaren ebaluazioa, test motatako galde-sortaren bidez; 3) Mikroorganismo baten norbanakako txostena.

Mintegiaren (Taldea lanak, Lanen aurkezpena) ebaluazioa (%10) honako irizpide hauek kontuan hartuta egingo da: idatzitako talde lanaren edukinaren egokitasuna eta aurkezpenaren kalitatea, baita informazio-igorpenaren eraginkortasuna ere.

Ebaluazioaren emaitza da 3 jarduera posibleetan lortutako puntuazioen batuketara (azterketa teorikoa, praktikak, mintegia), irakaskuntza teorikoa eta praktikoa gaindituta egotekotan. Bestela, ikasleak irakasgai huts egingo du eta lortuko den kalifikazio handiena 4/10 izango da.

Ordezko ebaluazioa: "Azken ebaluazioa".

Indarreko araudiaren arabera, ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari. Etengabeko ebaluazioari uko egiteko idatziaren eredia egelan dago. Idatzi hau aurkezteko epea irakaskuntzaren aldiko azken egunean bukatuko da.

Azken ebaluazioan erabiliko diren kalifikazio-portzentaiak honako hauek dira: azterketa teorikoa (%65, gutxieneko nota: 5/10) eta irakaskuntza praktikoaren ebaluaketa (%35, gutxieneko nota: 5/10).

Irakaskuntza teorikoaren eta praktikoaren ebaluazioa etengabeko ebaluazioan deskribatutako irizpideak jarraituz egingo da.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere. Bakarrik baimentzen da kalkulagailu eramatea. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

Deialdiari uko egitea

Bai etengabeko ebaluazioaren kasuan bai azken ebaluazioaren kasuan, nahikoa izango da azken proba ez aurkeztea azken kalifikazioa aurkezteke izan dadin.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gordeko dira.

Deialdi arruntan etengabeko ebaluazioa egin duten ikasleak ebaluatzeko honako tresna eta ehuneko hauek erabiliko dira: irakaskuntza teorikoa (% 60, gutxieneko nota: 5/10), irakaskuntza praktikoa (% 30, gutxieneko nota: 5/10), mintegiak (% 10).

Deialdi arruntan azken ebaluazioa egin duten ikasleak ebaluatzeko honako tresna eta ehuneko hauek erabiliko dira: irakaskuntza teorikoa (% 65, gutxieneko nota: 5/10), irakaskuntza praktikoa (% 35, gutxieneko nota: 5/10).

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere. Bakarrik baimentzen da kalkulagailu eramatea. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

Deialdiari uko egitea : azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Praktiketarako protokoloa, laborategiko mantala eta errotuladore iraunkorra.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Arregui L.; Calvo, P.; Martín, M.; Patiño, B.; Pérez, B.; Serrano, S.; de Silóniz, M. I.; Vázquez, C. (2014). Microbiología. Cuestiones y casos prácticos resueltos. Editorial Pearson, Madrid. ISBN: 978-84-9035-459-9

Madigan, M.T.; Bender, K.S.; Buckley, D.H.; Sattley, W.M.; Stahl, D.A. (2020). Brock Biology of microorganisms (16ª ed.). Pearson. ISBN: 978-0-13-487440-1

Madigan, M.T.; Martinko, J.M.; Parker, J. (2007). Brock Mikroorganismoen Biologia. 9. argitaldiaren itzulpena (euskaraz). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-9860-026-1

Martín, A.; Bejar, V.; Gutiérrez, J.; Llagostera, M.; Quesada, E. (2019). Microbiología esencial (1. arg.). Editorial Médica Panamericana, Madrid. ISBN: 978-84-9835-786-8

Tortora, G.J.; Funke, B.R.; Case, C.L. (2017). Introducción a la Microbiología. 12ª Ed. (castellano). Editorial Médica Panamericana, Madrid. ISBN: 978-950-06-9540-4.

Willey, J.M.; Sandman, K.; Wood, D. (2019). Prescott´s Microbiology. 11ª Ed. (inglés). MacGraw-Hill.ISBN: 978-12-6021-188-7

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Investigación y Ciencia.
Nature Reviews Microbiology
ELHUYAR zientzia eta teknologia

Interneteko helbide interesgarriak

- Prescott-erako sarbidea: http://highered.mcgraw-hill.com/sites/0072556781/student_view0/
- "ON-line" dauden zenbait liburutarako sarbidea: Microtextbook <http://www.microbiologytext.com/>
- The Microbe World: <http://www.microbeworld.org/>
- MicrobeWiki (Mikrobiologiari buruzko zenbait aspektu interesgarri, "wiki" eran): <http://microbewiki.kenyon.edu>
- D. Kunkel-ek egindako mikroorganismoen argazkiak: <http://www.denniskunkel.com/>
- MicrobiologyBytes: <http://www.microbiologybytes.com/>

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GBIOLO30 - Biologiako Gradua**Ikastaroa** 2. maila**IRAKASGAIA**

26832 - Mikroorganismoen Dibertsitatea

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgaiaren helburua ikasleak mikroorganismoen aniztasuna ulertzea da. Horretarako, sailkapen taxonomikoan erabiltzen diren irizpideak ikasi ondoren mikroorganismo prokarioto, eukarioto eta azelularren ezaugarri orokorrak, egiturazkoak eta fisiologikoak deskribatuko dira. Gainera, mikroorganismoek biosferan zein gizakiongan duten garrantzia ere azalduko da eta patogenesia eragiten duten faktoreak baita ostalariaren babes-mekanismoak ere ikusiko dira. Bestalde, ikasleak Industri-Mikrobiologia eta Ingurumen-Mikrobiologia arloen hastapenak ezagutuko ditu. Irakasgai hau egin baino lehen Mikrobiologia irakasgaia gaindituta edukitzea gomendatzen da. Bestalde, komenigarria da Mikroorganismoen Dibertsitatea gainditzea Mikroorganismoen Fisiologia, Ingurumen Mikrobiologia eta Mikrobiologia Aplikatu egin aurretik.

Irakasgai honetan lortuko diren gaitasunak oso erabilgarriak izango dira Biologiarekin erlazionatutako edozein arlotan lan egin ahal izateko (ikerkuntza, osasungintza, nekazaritzako elikagaien industria, farmazia-industrian, ingurumena, hezkuntza ...).

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgai honetan landuko diren gaitasun espezifikoak honakoak dira:

1. Mikroorganismoen dibertsitatea ezagutzea.
2. Mikroorganismoek ingurunean betetzen duten funtzioa azaltzea.
3. Mikroorganismoek industria-mailan duten baliagarritasuna estimatzea.
4. Mikroorganismoek giza-osasunean duten garrantzia baloratzea.
5. Lagin naturaletan dagoen mikroorganismoen dibertsitatea adieraztea.

Gainera, hurrengo zeharkako gaitasunak ere landuko dira:

1. Analisi, sintesi, antolaketa eta plangintza gaitasunak garatzea.
2. Pertsonen arteko harremanen gaitasuna garatzea, taldeko lana hobetzeko.
3. Arrazoibide zuhur eta kritikoa lantzea.
4. Ikaskuntza autonomia ahalbidetuko duten tresnak eskuratzea.

Ikaskuntzaren emaitzak:

Ikasleak gai izango dira mikroorganismo prokarioto, eukarioto eta azelularren aniztasuna ulertzeko, bai eta horiek gizadiarentzat duten garrantzia ulertzeko ere, klase magistraletan haien aplikazioei, ziklo biogeokimikoetan parte hartzei eta patogenizitate-mekanismoei buruz eskuratutako ezagutzetan oinarrituta. Irakasgaiaren irakaskuntza teorikoaren azterketan ebaluatuko da.

Ikasleak gai izango dira dibertsitate birikoarekin lotuta Interneten eskuragarri dauden datu-baseetako informazioa erabiltzeko. Esleituko zaizkien birus batzuen egiturazko, genomikako eta patogenizitateko alderdiei buruzko informazioa osatu behar dute ikasleek. Ikasgelan ebaluatuko da ariketak egiten diren bitartean edo irakasgaiaren irakaskuntza teorikoaren azterketan.

Ikasleak gai izango dira mikrobio-aniztasunaren alderdiren batekin lotutako informazioa hautatzeko eta termino egokiak erabiliz kontzeptu mikrobiologikoak jendaurrean azaltzeko. Gainera, dibulgazio-komunikabideetan argitaratzen den alderdi mikrobiologikoei buruzko informazioa kritikoki aztertu beharko du. Egin beharreko jarduera mintegiko lanean parte hartzea da. Memoria idatzien zuzentasuna, ahozko aurkezpenak eta lantaldean parte-hartze aktiboa oinarri hartuta ebaluatuko da.

Ikasleak hainbat mikroorganismo mota isolatzeko eta identifikatzeko gai izango dira laborategian, hainbat teknika, hazkuntza-ingurune eta inkubazio-baldintza erabiliz. Laborategiko praktikak egiten diren bitartean, ikasleek laginak behar bezala manipulatu behar dute, baita lan-eremuaren ordenaren eta garbitasunaren garrantzia, materiala behar bezala esterilizatu/desinfektatu eta hondakinak behar bezala ezabatzen ere. Laborategiko jarreraren ebaluazio jarraituaren bidez eta azterketa bat eginez ebaluatuko da.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Teoria eskolak:

1 Gaia. Mikroorganismoen taxonomia eta dibertsitatea.

Kontzeptua. Ezaugarri taxonomikoak eta beraien zehaztapena. Saillapen-sistemak. Mikroorganismoen filogenia.

2 Gaia. Arkeoak.

Arkeoen ezaugarri orokorrak. Arkeoen saillapena. Haloarkeoak. Metanogenoak. Arkeo termofiloak eta hipertermofiloak.

3 Gaia. Proteobakterioak.

Proteobakterioen aniztasuna. Heste-proteobakterioak. Vibrio eta antzeko generoak. Pseudomonas. Beste proteobakterio batzuk.

4 Gaia. Beste bakterio Gram negatibo batzuk.

Zianobakterioak eta beste bakterio fototrofo batzuk. Bacteria Domeinuaren antzineko adarrak. Planktomizetoak.

Klamidioak. Espiroketoak.

5 Gaia. Bakterio Gram positiboak eta antzekoak.

Firmicutes Phylum-a. Tenericutes Phylum-a. Actinobacteria Phylum-a.

6 Gaia. Onddoak.

Onddoen ezaugarri orokorrak. Ondoen identifikazioa. Saillapena eta talde nagusiak.

7 Gaia. Protistak.

Protisten ezaugarri orokorrak. Saillapena eta talde nagusiak.

8 Gaia. Birusen orokortasunak.

Birioiaren egitura. Birusak ikertzeko metodoak.

9 Gaia. Birusen ugalketa-ziklo desberdinak.

Aurkezpena. Ziklo litikoa. Ziklo lisogenikoa. Birusen infekzioak zelula ostalarian eragindako ondorioak.

10 Gaia. Birusen taxonomia eta dibertsitatea. Beste zoltzaile azpizelular batzuk.

Birusen saillapena. Prokariotoen birusak. Eukariotoen birusak. Biroideak eta prioiak.

11 Gaia. Mikroorganismoak eta beste bizidun batzuen arteko harremanak.

Mikroorganismoen arteko harremanak. Mikroorganismo-landareen arteko harremanak. Mikroorganismo-animalien arteko harremanak. Mikroorganismoak eta gaixotasun infekziosoak.

12 Gaia. Mikroorganismoak ingurumenean.

Mikroorganismoen ekologia arloan erabilitako metodoak. Ziklo biogeokimikoak. Mikroorganismoen ekosistemak.

13 Gaia. Industri Mikrobiologia eta Mikrobiologia Aplikatua.

Mikroorganismoak eta elikagaiak. Industri Mikrobiologiaren ekoizkin nagusiak. Biodegradazioa eta biorremediatzea.

Praktika eskolak:

1. Mikroorganismoen isolaketa eta identifikazioa. Isolaketa-teknikak. Kultibo-medio hautakorrak. Kultibo-medio bereizgarriak.

2. Interes aplikagarria duten mikroorganismoen behaketa. Esnekiak egiteko erabiltzen diren mikroorganismoak.

3. Mikroorganismo eukariotoen behaketa. Legamien eta onddo firukarien behaketa. Protisten behaketa.

4. Bakteriofagoen detekzioa. Bakteriofagoen aurreko sentikortasuna. Soilguneen detekzioa.

METODOLOGIA

- Eskoletan irakasleak egingo duen teoriaren azalpena.
- Ikasitako kontzeptuen aplikazio esperimentalak.
- Irakasgaiarekin erlazioatutako gai espezifikoaren prestapena, aurkezpena, eta eztabaida.
- Zalantzen ebazpena eta orientazioa.
- Proba idatziak eta praktikoak.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35	10		15					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	52,5	15		22,5					

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 60
- Praktika (ariketak, kasuak edo buruketak) % 25
- Talde lanak (arazoaren ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 15

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai honen ebaluazioa Gradu Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia izeneko dokumentuan oinarritzen da (<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2017001311>).

Lehentasunezko ebaluazioa: "Etengabeko ebaluazioa".

Irakaskuntza teorikoaren ebaluazioa (kalifikazio osoaren %60, gutxieneko nota 5/10) azterketa bakar baten bidez egingo da, eta test motako galderak izango ditu.

Irakaskuntza praktikoaren ebaluazioa (kalifikazio osoaren %25, gutxieneko nota 5/10) test motako azterketa baten bidez egingo da.

Mintegi monografikoak ebaluatzeko (kalifikazio osoaren: %15) idatzizko lanaren zein ahozko aurkezpenaren kalitatea, edukinaren egokitasuna baita informazio-igorpenaren eraginkortasuna ere, hartuko dira kontuan.

Irakasgaia kalifikatzeko 3 jarduera posibleen (azterketa teorikoa, eskola praktikoak, mintegiak) notak batuko dira, azterketa teorikoa eta praktikak gaindituta badaude. Horrelakoa ez bada, ikaslearen gehieneko kalifikazio orokorra 4/10 izango da.

Ordezko Ebaluazioa: "Azkeneko ebaluazioa".

Indarreko Arautegiaren arabera "Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuko izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari". Etengabeko ebaluazioari uko egitearen aurkezpen epea eskola magistralen azken egunean bukatuko da.

Azken ebaluazioa bi jardueren bidez burutuko da: azken azterketa (kalifikazio osoaren: %75, gutxieneko nota: 5/10) eta praktiketako azterketa (kalifikazio osoaren: %25, gutxieneko nota: 5/10).

Teoria eta praktikak ebaluatzeko etengabeko ebaluazioan azaldutako irizpide berberak erabiliko dira.

